



INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA
JASANGARRITASUNAREN SAILA
Ingurumen Jasangarritasunaren Sailburuordetza
Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y SOSTENIBILIDAD
Viceconsejería de Sostenibilidad Ambiental
Dirección de Calidad Ambiental y Economía Circular

Ebazpena, 2024ko urriaren 2koa, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Kalitate eta Ekonomia Zirkularreko zuzendariarena, zeinaren bidez formulatzen baita Sopelako (Bizkaia) Hiri Antolamenduko Plan Orokorren irismen-dokumentua.

AURREKARIAK

2024ko ekainaren 13an, Sopelako Udalak eskabidea aurkeztu zion Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Kalitate eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzari, Sopelako Hiri Antolamenduko Plan Orokorren ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua egin zezan, bat etorrita Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legearekin (abenduaren 9ko 10/2021 Legea) eta Ingurumen Ebaluazioari buruzko Legearekin (abenduaren 9ko 21/2013 Legea).

Eskabideari dokumentazio hau erantsi zitzaion: Planaren zirriborroa, hasierako dokumentu estrategikoa eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak V. eranskinean dakarren formularioa. Aipatu dekretuak planen eta programen ingurumen-ebaluazioaren prozedura arautzen du.

Ingurumen-organoak kontsulta-izapidea egin zuen (2024ko abuztuaren 12an hasitakoa), halaxe zehazten baita abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikuluan eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 9. artikuluan. Kontsulta-izapidetxearen emaitza espedientean dago jasota. Era berean, izapidetxearen hasieraren berri eman zitzaion Sopelako Udalari.

Halaber, espedientean jasotako dokumentuak eskuragarri egon ziren Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren webgunean, interesdun orok egin ahal izan zitzaion ingurumenaren arloan egoki irizitako oharrak.

Txostenak jasotzeko indarrean dagoen legerian ezarritako epea bukatuta eta jasotako txostenak aztertuta, egiaztatu zen ingurumen-organoak bazituela behar beste judizio-elementu ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua egiteko, abenduaren 9ko 21/2013 Legeak 19. artikuluan xedatutakoaren arabera.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 60. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da planen ingurumen-ebaluazioa arautuko duten oinarriak ezartzea, plan horiek ingurumenean eragin nabarmenak izan ditzaketenean; hala, ingurumena babesteko maila handia bermatuko da, garapen jasangarria sustatzeko asmoz.

Abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 72 artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta egin behar zaie administrazio publiko batek abian jarritako plan eta programei, bai eta haien aldaketek eta berrikuspenei ere (II.A eranskinean zerrendatu dira), legeko edo erregelamenduzko edota Gobernu Kontseiluaren xedapen batek beharturik prestatu badira, baldin eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egitera lege behartutako proiektuek etorkizunean baimentzeko esparrua ezartzen badute eta eranskin horren 6. apartatuan jasotako arloei buruzkoak badira.

Abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 68. artikulua xedatzen duenez, plan baten ingurumen-ebaluazio arrunta hasteko, beharrezkoa da ingurumen-organoak zehaztea zein den ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena, ukitutako administrazio publikoei eta interesdunei kontsulta egin ostean.

Donostia 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Este documento es una representación del original disponible a través del **localizador** y la **sede electrónica** indicados al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizkoaren irudikapen bat da, orri-oinean adierazitako **lokalizatzailearen** eta **egoitza elektronikoaren** bidez eskuragarri dagoena.



Bestalde, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak 18.1 artikuluan xedatzen du irismen-dokumentua hasteko eskabideari zer dokumentu erantsi behar zaizkion, eta, abenduaren 9ko 21/2013 Lege horri aurka egiten ez dioten alderdietan, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 8. artikulua zabaldu eta osatzen du hasierako dokumentu estrategikoari erantsi beharrekoaren edukia.

Azkenik, ingurumen-ebaluazio estrategikoaren irismena zehazte aldera, aintzat hartu dira 2013ko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak IV. eranskinean jasotako eskakizunak, ingurumen-azterketa estrategikoaren edukiari buruzkoak, baita 2012ko urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak I. eta II. eranskinetan jasotakoak ere, erreferentzia-dokumentuaren edukiaren ingurukoak eta ingurumen-jasangarritasunari buruzko txostenaren edukiaren ingurukoak, hurrenez hurren.

Orain arte azaldutako guztiari jarraikiz, espedientean jasotako txostenak aztertuta eta aplikatu beharreko legeak eta arauak ikusita (hau da, abenduaren 9ko 10/2021 Lege Orokorra, Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzkoa; abenduaren 9ko 21/2013 Legea, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoa; urriaren 16ko 211/2012 Dekretua, planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena; ekainaren 23ko 18/2024 Dekretua, lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen; otsailaren 23ko 68/2021 Dekretua, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena; urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; urriaren 1eko 40/2015 Legea, Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzkoa, eta aplikatzekoak diren gainerako arauak); bai eta aplikatzeko den gainerako araudia ere, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa. – Sopelako Hiri Antolamenduko Plan Orokorren (aurrerantzean, Plana edo HAPO) ingurumen-ebaluazio estrategikoaren irismen-dokumentua egitea, ingurumen-ondorioetarako soilik, baldintza hauen arabera:

1. Planaren xedea eta ebaluazio-prozesuaren irismena

Sopelak 840 hektareako azalera du, eta Bizkaiko Lurralde Historikoan dago, Bilbo Metropolitarraren eremu funtzionalean; halaber, Uribealdea (edo Plentzia-Mungia) eskualdeko burua da. Udalerriak Kantauri itsasoaren egiten du muga iparraldean, Barrika udalerriarekin ipar-ekialdean, Getxorekin ipar-mendebaldean, Urdulizekin hego-ekialdean eta Berangorekin hego-mendebaldean.

Sopela udalerraren indarreko plangintza orokorra dira 1998ko maiatzaren 20ko Foru Aginduaren bidez behin betiko onetsitako arau subsidiarioak eta gerora egindako aldaketa puntualak. Indarreko plangintza zaharra denez, eta oraingo lege-esparrura eta, era berean, ekonomia globalaren betekizunetara, gizarte-ohitura berrietara eta klima-aldaketaren erronketara egokitu beharregatik, Plana egitea justifikatuta dago.

Planak, besteak beste, helburu du hirigune trinkoa lortzea, garraio kolektiboa eta motorrik gabeko garraiobideak indartu eta hobetzea, hiri-jarduera berriak ondo kokatzea —garraio kolektiboari dagokionez—, hirian konplexutasun funtzionalaren mailak hobetzea eta bizitegi-eskaintza garatzea, etxebizitza babestuari protagonismoa emanik. Bestetik, Planak hiriko ekipamendu-maila egokia bermatu nahi du (hiriko sistema orokorrak eta ahalmen ekonomikoa indartzea, energiaren eta azpiegituren efizientzia lortzea, gizarte-kohesioa handitzea, gobernatzeko prozesu demokratiko eta parte-hartze bidezkoak bultzatzea eta, azkenik, ingurumen-sistema erdigunean ipintzea).

Planaren ingurumen-helburuen artean, berriz, hauek daude: nekazaritza-lurzorua babestea (balio estrategiko handiko lurzorua, batez ere), antolamenduan azpiegitura berdeari protagonismoa ematea, mugikortasun jasangarri eta efizientea, ondare-ondasunak babestu eta balioa ematea eta klima-aldaketara egokitze nahiz klima-aldaketa arintzeko neurriak ezartzea.

Hiri-ereduari begiratuta, Planak lurzoru urbanizagarriak eta hiri-lurzoru finkatuak eta finkatugabeak antolatzen ditu.

Hiri-lurzoru finkatugabeak, Planak hirigintza-eraldaketako hiru jarduketa integratu proposatzen ditu:

- AI-RU.01 Loroño: bizitegi-birdentsifikazioa
- AI-RU.02 Larrondobeko: industria-birdentsifikazioa
- AI-RU.03 Kanpin-eremua: kanpin-eremuaren birkalifikazioa; gaur egun, ekipamendu gisa kalifikatuta dago, eta ekonomia-jardueren eremu bihurtu nahi da, bertako jarduera zabaldu ahal izateko.

Planak, bestalde, eraikigarritasuna areagotzearen ondorioz behar diren zuzkidura-jarduketak jasotzen ditu eraikitako hamar zona hauetan, hiri-lurzoru finkatugabeak: AD.01 Sertutxa I, AD.02 Landa Doktoea, AD.03 Plazarte I, AD.04 Etxebarri, AD.05 Plazarte II, AD.06 Garden Center, AD.07 Sertutxa II, AD.08 Zabalbide, AD.09 Loiola eta AD.10 Gasolindegia.

Hiri-lurzoru finkatuan, Planak hauek jasotzen ditu:

- Ekipamendu-erabilera duten lurzatietan zuzkidura-bizitokiak sortzeko eraikuntza-jarduketa isolatuak: AA. AD-EQ.01 Telleri I (azalera: 984 m², proposaturiko eraikigarritasuna: 1.620 m²t, zuzkidura-bizitokiaren gutxi gorabeherako kopurua: 20) eta AA. AD-EQ.01 Telleri II (azalera: 903 m², proposaturiko eraikigarritasuna: 1.260 m²t, zuzkidura-bizitokiaren gutxi gorabeherako kopurua: 16).
- Udal-etxebizitza babestu publikoak sortzeko eraikuntza-jarduketa isolatuak: AA. VPP.01 Alonsoene, AA. VPP.02 Loiola, AA. VPP.03 Etxeondoak, AA. VPP.04 Zaldukanpo, AA. VPP.05 Arabeta, AA. VPP.06 Bidebarri-Loiola eta AA. VPP.07 Lubaki.
- Hirigintza hobetzeko jarduketak: AMU.01 / Loiola-Ander Deuna kalea, AMU.02 / Landaluze-Cientoetxe eta AMU.03 / Gatzarriñe kalea. Oraingo urbanizazioa hobetzeko jarduketa integratuen guztizko azalera 79.479 m²-koa da.

Lurzoru urbanizagarriak, sektorizatu gabeko bost eremu proposatzen dira, bizitegi-erabilera orokorrekoak guztiak. Planak 44,20 hektarea inguruko azalera jotzen du lurzoru urbanizagarritzat (hau da, udal-mugartearen % 5,32), eta 9,44 hektarea bideratzen dira sistema orokorretara. Hona hemen sektorizatu gabeko lurzoru urbanizagarriko eremuak:

- SUS.01 / Ripa: lurzoru urbanizagarriko sektorea da, eta, indarreko arau subsidiarioetan, bizitegi-erabilera orokorra dauka. Eremu horrek plan partzial bat dauka idatzita, nahiz eta ez den behin betiko onetsi. Planak plan xehakatuan proposatutako antolamendua txertatzea proposatzen du, baina eraikigarritasuna handituta; batetik, garapena ekonomikoki bideragarriagoa izateko, eta, bestetik, etxebizitza babestuen kopurua areagotu ahal izateko eta, horrela, oraingo arau subsidiarioen indarraldian etxebizitza babestuen arloan pilatutako defizita zati batean konpontzeko.

Hona eremuaren hirigintza-parametroak: 33.791,65 m²-ko bizitegi-eraikigarritasuna; 25.370,00 m²-ko bizitegi-eraikigarritasuna etxebizitza babestuetarako; eta 1.750,00 m²-ko eraikigarritasun tertziarioa; gutxi gorabehera, 316 etxebizitza, 252 babestuak.

Egitura-mailan, Artadi kalea, ingurabide gisakoa izanik, Loroño kaleraino luzatzea proposatzen da.

Sektoreak eremu libreen 32.285 m²-ko sistema orokorra dauka atxikita, «Lemotza parkea» izenekoa; indarreko arau subsidiarioen EL-4 sistema da, arau horiei mugaketa-arloan gerora egindako aldaketen arabera.

- SUS.02 / Abaro: lurzoru urbanizagarriko sektorea da, eta, indarreko arau subsidiarioetan, bizitegi-erabilera orokorra dauka. Plan partzial bat dauka idatzita eta behin betiko onetsita. Plan xehatuan proposatutako antolamendua eta eraikigarritasunak txertatzea proposatzen du Planak.

Hona eremuaren hirigintza-parametroak: 48.150,00 m²-ko bizitegi-eraikigarritasuna; 36.750,00 m²-ko bizitegi-eraikigarritasuna etxebizitza babestuetarako; eta 4.680 m²-ko eraikigarritasun tertziarioa; gutxi gorabehera, 602 etxebizitza, 490 babestuak.

«Larrabasterra parkea» izeneko eremu libreen sistema orokorrari buruz, ibilgailuetarako bide berri bat egitea proposatzen du Planak, Gatzarriñe kaletik Abaro sektorerara, sistema orokor horren erditik igarota; hau da, sistema orokorra bitan zatitu, eta bideak hartuko lukeen eremua komunikazio-sistema orokorra izatera igaroko litzateke. Era berean, bidea amaitu eta sektorearen hegoaldeko bidearekin lotzeko, eremu libreen tokiko sistema batzuk tokiko komunikazio-sistema gisa birkalifikatzea proposatzen da.

- SUS.03 / Ander Deuna: antolamendu-proposamenak helburu du indarreko arau subsidiarioen garapen-segida amaitzea aldameneko lurzoru urbanizagarrietan eta hiri-errematea egitea. Gainera, trafikoa berrantolatzeko sektore estrategikoa da: bide berri bat eraiki daiteke, Loiola Ander Deuna kalera sartzen den trafikoaren zati bat desbideratzeko. Ingestabaso kalearen luzapena izango litzateke, eta BI-3114 errepidearekin bat egingo luke Sandiandere eremuan.

Hona eremuaren hirigintza-parametroak: 29.717,60 m²-ko bizitegi-eraikigarritasuna; 22.288,20 m²-ko bizitegi-eraikigarritasuna etxebizitza babestuetarako; eta 3.480,00 m²-ko eraikigarritasun tertziarioa; gutxi gorabehera, 297 etxebizitza, 248 babestuak.

Sektorearen antolamendu xehatua egiteko, tokiko sistema orokor bat kokatu beharko da, sektoreko parke handia izango dena, eta bertara iritsi beharko dira Bareño eremukoko lurzoru mugakideetako ardatz berde jarraituak.

Eremuaren etorkizuneko antolamenduak barruan hartuko ditu eremuan bertan dauden bizitegi-eraikuntzak. Halaber, aldameneko bizitegi-auzoa (Aratzabil etxebizitza-blokeak: 20, 20A, 22, 22A, 24, 24A) aintzat hartu beharko da, antolamenduak ez dezan multzoa isolatu.

- SUS.04 / Ganebarri: antolamendu-proposamenak helburu du herrigunearen iparraldeko ingurabidearen azken tartearen Urdulizko udalerriarekin lotzea eta bizitegi-eremu berri bat sortzea, aurretiko bizitegi-eraikuntzak integratuta.

Hona eremuaren hirigintza-parametroak: 12.856,68 m²-ko bizitegi-eraikigarritasuna; 9.642,51 m²-ko bizitegi-eraikigarritasuna etxebizitza babestuetarako; eta 1.428,52 m²-ko eraikigarritasun tertziarioa; gutxi gorabehera, 129 etxebizitza, 107 babestuak.

- SUS.05 / Argaluze: eremu landatar honetan, hainbat baserri daude, baita ekonomia- eta industria-jarduera batzuk ere. Planak gaur egungo erabilerak antolatu nahi ditu, eta bizitegi-eremu berri bat sortu. Planaren arabera, barruan geratzen diren bizitegi-eraikuntza guztiak bildu beharko ditu sektore honen antolamenduak, eta jardunean dauden ekonomia-jarduerari eutsi beharko die, bateragarria izango den eta erabilerak elkartzeari bide emango dion antolamendu baten bidez.

Hona eremuaren hirigintza-parametroak: 42.686,11 m²-ko bizitegi-eraikigarritasuna; 32.014,58 m²-ko bizitegi-eraikigarritasuna etxebizitza babestuetarako; 1.986,00 m²-ko eraikigarritasun tertziarioa; eta 2.995,00 m²-ko industria-eraikigarritasuna; gutxi gorabehera, 427 etxebizitza, 356 babestuak.

Sektore honek komunikazio-sistema orokor bat (7.949 m²) dauka atxikita, Larrabasterrako saihesbide zatirako behar diren lurzoruak eskuratu ahal izateko, Sopolako kiroldegia hegoaldean; aldi berean, sektorerara iristeko bidea izango litzateke.

Bestalde, Planak Osteiko sektorea jasotzen du (sistema orokor atxikia); Olabide kalearekin egiten du muga mendebaldean, eta Urdulizko udalerriarekin ekialdean. Urdulizko udalerriko Osteiko eremu urbanizagarriaren % 11,84 hartzen du, zeina Sopolako udalerriko lurzoru urbanizagarria atxikitako sistema orokor gisa baitago sailkatuta. Alboko udalerriri dagokion Osteiko Plan Partzialaren bidez garatuko dira lurzoruak. Atxikitako sistema-eremuaren zatirik handiena eremu libreena da (16.156 m²), baina baita komunikazioena ere (2.682 m²). Eremuak, guztira, 18.838 m²-ko azalera du.

Eremu libreei dagokienez, Planak jabari eta erabilera publikoko eremu libreen eta berdeguneen sare bat diseinatzen du, sare berde jarraitua lortzeko xedez. Eremu libreen tokiko sistemaren guztizko azalera 312.454 m²-koa da. Proposatutako sistema orokorren azalera 204.605 m²-koa da; hau da, sistemaren guztizko azaleraren % 65,48.

Bestalde, Planak proposatutako ekipamendu-sistema orokorraren guztizko azalera 239.231 m²-koa da. Proposatutako sistema orokorren azalera 37.429 m²-koa da; hau da, sistemaren guztizko azaleraren % 15,65. Ekipamendu orokor publikoen guztizko azalera, berriz, 197.504,66 m²-koa da. Elementu horien % 19 Planean proposatutako ekipamendu orokorrek hartzen dute. Ekipamendu orokorreko lurzoru-azalera horiekin, ekipamendu orokorreko lurzoruak 17,27 m²-koak dira biztanleko. Planeko proposamenarekin aurreikusi den hazkuntza potentziala gaineratzen badiogu horri, indizea 15,65 m²-koa izango litzateke biztanleko.

Planak mugikortasun jasagarriaren arloko irizpideak jasotzen ditu antolamenduan, eta babestutako ondasunen katalogo bat proposatzen du, hiri-ondarea babesteko tresna espezifiko gisa.

Landa-eremuei dagokienez, proposatutako ereduak antolamendu hau jasotzen du **lurzoru urbanizaezinerako**:

- Babes bereziko lurzoru urbanizaezina. Kategoria honetara atxikita daude:
 - o Galea-Barrika lurmuturra, natura-intereseko eremuen katalogo irekia
 - o Geologia Intereseko Lekuak: GIL-35: Meñakotzeko kuxin-labak, GIL-44: Sopelako K/T muga eta GIL-90: Barrika-Galeako paleozabalgunea
- Ingurumena hobetzeko lurzoru urbanizaezina: Itsasertzeko LPSak zehaztutako hiru poltsa handi.
- Basoko lurzoru urbanizaezina: Sopelan, udalerriaren ekialdeko mendi-hegal eta malda adierazgarrienera mugatzen da kategoria hau. Basoko zuhaitz-formazioak, gehienbat, baliabidea bera ustiatzera bideratzen dira.
- Nekazaritza eta abeltzaintzako eta landazabaleko lurzoru urbanizaezina: Sopelako udalerrian, Nekazaritza eta Basogintzako LPSan jasotzen diren nekazaritza eta abeltzaintzako eta landazabaleko lurzoruen bi azpikategoriak identifikatzen dira:
 - o Nekazaritza eta abeltzaintzako lurzorua, balio estrategiko handikoa
 - o Trantsizioko landa-paisaia
- Lurrazaleko urak babesteko lurzoru urbanizaezina: ibaiak eta errekek hartzen ditu, baita haien babes-eremuak ere.

Lurzoru urbanizaezinen antolamendua osatzeko, arrisku naturalen baldintzatzaile gainjarriak eta azpiegitura berdeko baldintzatzaile gainjarriak ezarri dira, eta Sopelako azpiegitura berdea osatzen duten elementuak identifikatzeko hurbilketa bat egin da.

Bestetik, **lurzoru urbanizaezinean jarduketa** hauek egitea aurreikusi da:

- Zuzkidura publikoak gauzatzeko jarduketak: AE.DP.01 / Olabide tunela. Jarduketa hau Errepideen LPSan markatuta dago; plan horren arabera, saihezbide bat egingo da Larrabasterran, gero, tunel baten bidez, Urdulizeko udalerriarekin konektatzeko. Aurrerapenak LPSaren proposamena (tunela egitekoa) txertatzea proposatzen du. Jarduketaren azalera 16.811 m²-koa da.
- Dagoen bidea hobetzea: MVE.01 / Loiola-Ander Deuna kalea. Loiola Ander Deuna kalearen diseinua hobetzea da jarduketa honen helburua, trafiko baretuko zeharkalea izan dadin, norabide bakarrekoa (Barrikarantz). Jarduketa hau funtsezkoa da, errepideak ez dezan oztopatu udalerriaren erdialdea eta azken urteetan eraiki diren bizitegi-eremu berriak konektatzea. Hirigintza hobetzeko proposamena bi jarduketatan zatituta dago, kale horren zati bat lurzoru urbanizaezin gisa baitago sailkatuta. Bi jarduketak elkarrekin egin behar direla uste da. Jarduketa-zatiketaren azalera 3.474 m²-koa da.

- MVE.02 / Gatzarriñe kalea: Jarduketa hau Gatzarriñe kalean kokatuta dago, Enrike Urrutikoetxea kalearen eta Olabide tuneleko biribilguneko jarduketaren artean, eta hirigintza-jarduera kale handiago batera egokitzea du helburu, herrigunetik tunelerantz eta tuneletik herrigunerantz desbideratzen den trafikoa hartu ahal izan dezan. Jarduketa-zatiketaren azalera 8.068 m²-koa da.

Antolamendu-proposamen hau gauzatzeko, aurkeztutako dokumentazioaren arabera, hiru egoera alternatibo pentsatu dira: 0 alternatiba edo jarduketarik ez egitea, indarreko hirigintza-plangintza orokorrari eustea planteatzen duena (1998ko maiatzaren 20ko Foru Aginduaren bidez behin betiko onetsitako arau subsidiarioak eta gerora egindako aldaketa puntualak), 1. alternatiba eta 2. alternatiba.

1. alternatibak zein 2. alternatibak hauek betetzea dute xede: Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen (LAG) eta Bultzatu 2050-Euskadiko Hiri Agendaren ondoriozko helburu juridikoak, hirigintzakoak eta ingurumenekoak, klima-aldaketaren erronka, eta hiri-jasangarritasuneko eta gizarte-kohesioko irizpideak. Hiri-lurzoruan, bi alternatibek barruan hartzen dute Sopelako hirigunea, bai jatorrizko bilbea zaindu, birdentsifikatu eta balioa emateko, bai zuzkidura hobetzeko. Lurzoru urbanizaezinaren antolamenduak ere legedi sektorialean, LAGetan, Bilbo Metropolitarraren LPPan eta LPSetan jasotzen diren betekizunak betetzen ditu, arrisku naturalen, klima-aldaketaren eta azpiegitura berdearen inguruko baldintzatzaile gainjarriak barne.

Hiri-lurzoruan, 2. alternatibak —1. alternatibarekin alderatuta— zuzkidura hobetzeko eta mugikortasun jasangarria sustatzeko jarduerak gaineratzen ditu, Loiola-Ander Deuna kalean eta Ingestabaso kalean jarduketa estrategikoak aurreikusita. Hala, udalerriko trafiko nagusiak birbanatu nahi ditu, eta ardatz horiek eraldatu, motordunak ez diren garraibideak eta naturaguneak ugaritu daitezten.

Lurzoru urbanizaezinean, berriz, 1. alternatibak Larrabasterrako saihezbidea txertatu du, Bizkaiko Errepideen LPSan jaso moduan; beraz, hasierako dokumentu estrategikoarekin bat, arku eszentriko bat sortuko da hiri-ertzean, tentsioan egon daitekeen lurzoru-poltsa handi bat eratuta. Hala, Bizkaiko Errepideen LPSan ezartzen den lurralde-konektagarritasuneko proposamena aldatzen du 2. alternatibak: tunelaren tarteari dagokion jarduketa baino ez du sartzen, eta Larrabasterrako saihezbidea SUS.05 Argaluze sektore berriaren mugara doitzea proposatzen du, ingurabide gisara. 2. alternatibak, gainera, 1. alternatibak lurzoru urbanizaezinerako proposatzen duen antolamendua osatzen du, beste udal-azpiegitura berde bat zehazten baitu: azpiegitura berde horren osagaiak zehazten ditu, eta eremu librean sistemako elementuekin konektatzen, hiri-lurzoru urbanizagarrian.

Alternatiben ingurumen-ebaluazioa eta -balorazioa egiteko, kontuan hartu da Bultzatu 2050-Euskadiko Hiri Agendaren helburuak betetzen dituzten. Analisi horren arabera, 0 alternatibak jasangarritasun-maila baxua dauka; batez ere, 1998ko arauak ezin daitezkeelako egokitu lurraldeko eta sektoreko betekizun berrietara. 1. alternatibak jasangarritasun-maila ertaina dauka, baina baztertu egin da, bai Bizkaiko Errepideen LPSan aipatzen diren lurralde-azpiegiturek askoz ere lurzoru gehiago hartzea dakarrelako, bai Sopelaren eta herria inguratzen duen landa-lurzoruaren dinamika alde batera uzten duelako. Azkenik, Planak garatzen duen 2. alternatiba aukeratu da, Bultzatu 2050-Euskadiko Hiri Agendaren helburuekin bateragarriena delako. Zentzu horretan, hautatutako alternatiba egokia dela argudiatu du hasierako dokumentu estrategikoak, jasangarritasun globalaren ingurumen-, ekonomia- eta gizarte-dimentsioak aintzat hartuta.

2. Aplikatzekoak diren ingurumen-helburu estrategikoak eta jasangarritasuneko printzipioak eta irizpideak

Ingurumen-azterketa estrategikoak (aurrerantzean, IAE) berariaz justifikatu beharko du Planak nola ezartzen dituen araudietatik, estrategietatik eta oro har onartutako programetatik eratorritako ingurumen-helburuak; 2030eko V. Ingurumen Esparru Programaren helburu estrategikoak eta jarduketa-lerroak hartuko dira Plana egiteko funtsezko oinarri gisa. Gainera, kontuan hartu beharko dira urriaren 16ko 211/2012 Dekretuan jasotako irizpideak (211/2012 Dekretua, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena) eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legean (abenduaren 9ko 10/2021 Legea) ezarritako helburuak eta printzipioak, bai eta Euskadiko Natura Ondarea Kontserbatzeko Legean (azaroaren 25eko 9/2021 Legea) zehaztutako helburuak eta printzipioak ere.

Era berean, kontuan hartuko dira Planari aplikagarri zaizkion lurralde-antolamenduko planetan eta plan sektorialetan ingurumena babesteko finkatutako irizpideak, helburuak eta zehaztapenak.

Zehazki, garapen jasangarriko printzipio hauek gidatuko dute Plana:

- a) Lurzorua zentzuz eta modu intentsiboan erabiltzea eta lehendik ere artifizializatuta dauden lurzoruen erabilera intentsiboa lehenestea, nekazaritza-balio handiko lurzorua eta lurzoru naturala urbanizatzetik babestuta.
- b) Hiri-segregazioa, hiri-barreiadura eta mugikortasun behartua saihestea, irisgarritasuna sustatuz, lurzoruaren erabileren eta mugikortasunaren plangintza integratuaren eta hiri-egitura dentso, trinko eta konplexuen bidez.
- c) Lurzoruaren zigilatzea murriztea, lurzorua jasangarritasun handiagoz erabiliz eta ahal beste eginkizuni euts diezaion sustatuz.
- d) Ur-masen egoera ekologiko ona lortzea, baita baliabide horren erabilera jasangarria ere.
- e) Habitatak eta espezieak, natura-ingurumena eta konektagarritasun ekologikoa zaintzea eta hobetzea.
- f) Saihetsezin gisa ebaluatutako kapital naturalaren galerak konpentsatzea, eta konpentsazio horretarako beharrezkoak diren mekanismoak ezartzea.
- g) Biodibertsitatearen galera geldiaraztea, ekosistemak leheneratzea eta lurzoruaren artifizializazioa mugatzea.
- h) Paisaiak eta kultura-ondarea kontserbatzea eta hobetzea.
- i) Ondare geologikoa kontserbatzea.
- j) Natura-baliabideen erabilera jasangarria sustatzea: ura, energia, lurzorua eta materialak.
- k) Energia-aurrezpena eta -efizientzia eta energia berriztagarrien nahiz kogenerazioaren erabilera sustatzea.
- l) Aire garbia bermatzea, bai eta zarata eta argi-kutsadura handien eraginpean bizi diren biztanleen kopurua murriztea ere.
- m) Klima-aldaketaketikiko kalteberatasuna gutxitzen laguntzea, kaltea arintzeko neurriak eta aldaketara egokitzeko neurriak integratuz.
- n) Arrisku naturalak minimizatzea.
- o) Lurzoru kutsatuaren kudeaketa hobetzea, lurzoruaren agenteen eta erabiltzaile potentzialen berme juridikoa eta jardura indartuz.

3. Esparru geografikoa eta ingurumen-garrantziko eremuak

Sopelako udalerriak 840 hektareako azalera dauka. Kantauri itsasoarekin egiten du muga iparraldean, Barrika udalerriarekin ipar-ekialdean, Getxorekin ipar-mendebaldean, Urdulizekin hego-ekialdean eta Berangorekin hego-mendebaldean. Bilbo Metropolitarraren eremu funtzionalean dago, eta Uribealdea (edo Plentzia-Mungia) eskualdeko burua da. Jarraian, natura-ingurunearen eta hiri-habitataren ezaugarri garrantzitsuenak nabarmenduko ditugu:

- Kantauri itsasoak bustitzen du Sopela; gutxi gorabehera, 6 km-ko kosta-lerroa dauka. Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Espainiako Zatiaren Plan Hidrologikoan (2021-2027), kostaldeko ur-masa horrek Kantabria-Matxitxako izena jasotzen du.
- Udalerria Ibaizabalgo unitate hidrologikoan (UH) dago, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren barruan. Arroko ur-masa nagusia Gobelas-A (ES111R074030) da; ibai kantauriar-atlantiko kareduna da, eta oso izaera aldatua dauka. Gobela ibaiak iparraldetik hegoaldera zeharkatzen du udalerria, eta, tarte batzuetan, lurpetik igarotzen da. Gobelaren adarrak Zaituerreka du izena, eta haren adarra «7201 izengabea» erreka da; hasierako dokumentu estrategikoan, ordea, Lemotza izena hartzen du. Hiru ur-ibilgu horiek ardazten dute ibai-sarea, baina ibilgu txikiagoek urak isurtzen dizkiete. Bestetik, Iturralde

erreka identifikatu dugu udalerriaren iparraldean; zuzenean itsasoratzen da, Atxabiribil hondartzaren parean. Plangintzaren eskumen-eremuei dagokienez, sare hidrografikoa erkidego barruko arroen barruan dago, eta Uraren Euskal Agentziak (URA) du haren gaineko eskumena ur-arloan.

- Plan Hidrologikoaren Eremu Babestuen Erregistroan, Gobela ibaia «Galzoriko espezieen interes bereziko eremu» gisa agertzen da; zehazki, arrain hiruarantzarako (*Gasterosteus aculeatus*). Itsasertzean, «Bainatzeko eremuak» daude (Barinatxe eta Atxabiribil-Arriatera hondartzak), eta, udalerriaren ekialdean, Erregistroko «Eremu kaltebererako harguneak» daude.
- EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatze LPSaren arabera, Zaituerreka eta «7201 izengabea» errekek 0 mailakotzat hartzen dira (1-10 km²), haien osagai hidraulikoa kontuan hartuta; udalerriko gainerako ibilguk, berriz, 1 km²-tik beherako arroak dauzkate. Horretaz gainera, LPS horren arabera, ibilguen ingurumen-osagaia kontuan hartuta, aipatzekoa da Zaituerrekaren ertzen zati txiki batzuk ondo kontserbatutako landaredia duten eremutat jotzen direla.
- Ikuspegi hidrogeologikotik, udalerria Bizkaiko Sinklinorioko lurpeko ur-masaren gainean dago (ES017MSBT017-005), eta eremu batzuek interes hidrogeologikoa dute eta lurpeko ur-masen «Getxo-Bergara Kuaternarioa» sektorean daude.
- Eremu babestuei dagokienez, Sopelak ez dauka Natura 2000 Sareko elementurik; halere, itsasertza LAGetan jasotzen den azpiegitura berdeko Galea-Barrika lurmuturra natura-intereseko eremuan dago. Halaber, Gobela ibaiaren, «7201 izengabea» erreka-stoaren eta Zaituerrekaren amaierako tartea azpiegitura berde horren bilbe urdinean sartuta daude. Bizkaiko azpiegitura berde eta urdinerako proposamenaren arabera, gainera, itsasertza Galea-Plentzia kosta zatian sartuta dago, eta udalerriaren hegoaldea Urdaibai-Bilbo Metropolitarrak igarobide ekologikoari gainjartzen zaio. Bestetik, Gobela, «7201 izengabea» eta Zaituerreka ibilguak Gobelaren igarobide urdinerak atxikitako eremuak dira, eta Gobela ibaia bera azpiegitura urdinean sartuta dago. Bestalde, hauek dira udalerriko geologia-intereseko lekuak: GIL-35: Meñakotzeko kuxin-labak, GIL-44: Sopelako K/T muga eta GIL-90: Barrika-Galeako paleozabalgunea.
- Nekazaritza eta Basogintzako Lurralde Plan Sektorialaren arabera, balio estrategiko handiko lursailak daude hiri-bilbearekin mugakide diren landa-lurzoruetan. Hala, SUS.03, SUS.04 eta SUS.05 eremuetako proposamenak balio estrategiko handiko lurzoru urbanizaezinetan daude gaur egun. Udalerriaren gainerakoan, lurzoru urbanizaezinean, Basoa eta Nekazaritza eta abeltzaintza: trantsizioko landa-paisaia kategoriak dira nagusi.
- Landarediari dagokionez, Sopelako hirigune urbanizatuak bi eremutan zatitzen du udalerria: batetik, hiri-ehunduraren ekialdeko lursailak daude, non baso-landaketak (gehienbat, *Eucalypto globulus*) eta belardiak gailentzen baitira eta, neurri txikiagoan, baita sasitzak ere; bestetik, hirigunearen mendebaldeko eremua dugu, hirigunearen eta itsasertzaren artekoa, non belardia eta sasitza gailentzen baitira, eta baso-landaketa (*Pinus pinaster*) txiki batzuk daude. Udalerrian, halaber, hostozabalen unada autoktonoak daude han-hemen sakabanatuta (Zaituerrekaren eta bere adarren —Mendibeko Serro erreken eta, unean-unean, «8314 izengabea» erreken— ezkerraldean, «7201 izengabea» ubidearen ezkerraldean eta Gobela ibaiaren eta urak isurtzen dizkion «7179 izengabea» adarraren goiko aldean, besteak beste). Hasierako dokumentu estrategikoaren arabera, landaredi autoktonoak (harizti kantauriarrak, ameztiak, harizti-lizardiak eta artadi kantauriarrak) oso urriak dira udalerrian (azaleraren % 4,37), eta azalera urriko nahiz konektagarritasun eskaseko landaredi-orban naturaletan biziraute dute. Bestalde, aurkeztu den dokumentazioaren arabera, Batasunaren intereseko lehentasunezko hiru habitat daude udalerrian (4040* Kostako txilardi lehor atlantikoak, *Erica vagans*, 6210* Belardi lehor erdi-naturalak eta karedun substratu gaineko sasitza-faziesak (*Festuco-Brometalia*) (orkidea nabariak dituzten parajeak) eta 91E0* *Alnus glutinosa* eta *Fraxinus excelsior* baso alubialak (*Alno-Padion*, *Alnion incanae*, *Salicion albae*), eta lehentasunezkoak ez diren bost (1230 Kosta atlantiko eta baltikoetako landaredia duten itsaslabarrak, 4030 Europako txilardi lehorrak, 6510 Altitude baxuko sega-belardi elkorak (*Alopecurus pratensis*, *Sanguisorba officinalis*), 8220 Landaredi kasmofitikoa duten malda harritsu silizeoak eta 9340 *Quercus ilex* eta *Quercus rotundifolia* basoak); era berean, galzoriko zortzi flora-espezie identifikatu dira udalerrian, Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan sartuta daudenak: *Culcita macrocarpa*, *Olea europaea var sylvestris*, *Lavatera arborea*, *Woodwardia radicans*, *Cochlearia*

dánica, Dryopteris aemula, Pinguicula lusitanica eta *Ilex aquifolium*. Amaitzeko, Sopelan landaredi inbaditzailea ere badagoela aipatzen da; besteren artean, akazia, sasiakazia, mimosa, panpa-lezka eta kanaberadiak. Planeko proposamen batzuek bat egiten dute Batasunaren intereseko habitat batzuekin: SUS.03 eremuak honekin: BIH 4040* Kostako txilardi lehor atlantikoak, *Erica vagans*; SUS.02, SUS.04 eta SUS.05 eremuek honekin: BIH 6510 Altitude baxuko sega-belardi elkorak (*Alopecurus pratensis, Sanguisorba officinalis*). Halaber, kontuan hartu beharko da Zientotoetxe parkeko (A, B eta C), Trokabide parkeko eta Barinatxe parkeko lurzoru urbanizaezinetarako proposamenetan Batasunaren intereseko habitatak daudela.

- Hasierako dokumentu estrategikoak faunari buruz adierazten du udalerriko fauna-komunitate nagusiak hiri-inguruneetakoak direla. Udallerriak, baina, zabala eta anitza denez, fauna-komunitate espezifikoak dauzkaten askotariko habitatak biltzen ditu (kostakoak, belardiak, larreak, ibaiak eta baso-inguruneak), eta, zenbait habitatetan, EAEn galzorian dauden garrantzi bereziko espezieak bizi dira: arrain hiruarantza (*Gasterosteus aculeatus*), ekaitz-txori europarra (*Hydrobates pelagicus*), bisoi europarra (*Mustela lutreola*) eta ubarroi mottoduna (*Phalacrocorax aristotelis*).
- Lurrazaleko ur-ibilgu batzuk (Zaituerreka eta bere adarrak, Gobela ibaia eta bere adarrak eta «7201 izengabea» erreka) Hobetzeko tartetzat jotzen dira bisoi europarrarentzat (*Mustela lutreola*), zeinak kontserbatzeko kudeaketa-plan bat baitu Bizkaian. Bestalde, Gobela ibaiaren amaierako zatia, udalerrian bertan, interes bereziko eremutzat jotzen da arrain hiruarantzarako (*Gasterosteus aculeatus*); espezie horrek ere badu kontserbatzeko kudeaketa-plan bat. Beste alde batetik, udalerriko itsasertza abifauna babesteko Kosta-Plentzia-Bolue-Lemoniz-Jata sektorearen barruan dago, halaxe izendatu baitzen Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2016ko maiatzaren 6ko Aginduaren bidez (2016ko maiatzaren 23ko EHAA, 96. zk.). Udalerrian, ez da identifikatu Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoak babesteko kudeaketa-planaren xede den eremurik, zeinak mugatuta baitaude, azaroaren 14ko 1632/2011 Errege Dekretuan (basa-faunako espezie jakin batzuk giza kontsumorako erabiltzen ez diren animalia-azpiproduktuekin elikatzea arautzen duena) ezarritako irizpideen arabera.
- EAEko Paisaia Berezien eta Apartekoen Katalogo Irekiaren aurreproiektuaren arabera (2005), eremua, funtsean, Sopelako (534) eta Laukizko (335) ikuseremuen artean banatzen da, baita, lekuren batean, Getxoko (243) ikuseremuan ere. Bada, paisaia-balio txikia dutenez, ez daude katalogatuta, baina bai EAEko Paisaia Berezien eta Apartekoen Inbentarioan sartuta. Udalerriko itsasertza bat dator itsas eraginpeko paisaia katalogatuekin. Bilbo Metropolitarraren Eremu Funtzionaleko Paisaien Katalogoak hiru paisaia-unitate bereizten ditu Sopelan (21. unitatea: Unbe – Gaztelumendi gailur-lerroa; 22. unitatea: Uribe Kostako landazabala; 23. unitatea: Uribe Kostako itsaslabarrak), eta «Sopela-Barrikako zelaia» paisaia-interes bereziko eremua identifikatzen du, zeina udalerriko itsasertza baita.
- Sopelako udal-mugarrean, kultura-ondareko hainbat elementu arkeologiko daude.
- Ingurumen-arriskuei dagokienez, lurzoria kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lurzoruen inbentarioan sartutako zenbait lurzati identifikatu dira udalerrian, eta SUS.05 eremurako proposatutako jarduketak 48085-00002 kodearekin inbentariatuta dagoen industria-lurzatian egin nahi dira. Udallerriak, bestalde, akuiferoen kutsadurarekiko kalteberatasun handiko eta oso handiko eremuak dauzka lurzoru urbanizagarriko hirigintza-eremu proposatuetan. Bestetik, ibai-dinamika dela-eta 10, 100 eta 500 urteko erreplikatzeko-denbora duten uraldien eraginpeko eremuak identifikatu dira, uholde-arriskua dutenak, SUS.02 eremuan eta, zenbait gunetan, SUS.05 eremuan.
- Egoera akustikoari erreparatuta, aurkeztu den dokumentazioaren arabera, bide-azpiegiturak (BI-2122, BI-2704, BI-3124, BI-634 eta BI-637) eta metroa dira emisio-iturri nagusiak, eta, azpiegitura horien inguruan, maila akustiko altuak aurreikusten dira.

4. Jarduketak kokatzeko eremu desegokiak

Ingurune fisikoan ondorio nabarmenak dituzten jarduketak egiteko, desegokitzen jo beharko dira aurreko apartatuan jasotako ingurumen- edo kultura-balio garrantzitsuak dituzten eremu guztiak.

Planean, nekazaritza-balioa duten lurzoru natural zabalak okupatzea ekarriko duten jarduketak proposatu dira. Planak baieztatzen duenez, nekazaritza-balio handieneko lurzoruak kontserbatzea da asmoa; alabaina, SUS.03,

SUS.04 eta SUS.05 eremuetako jarduketekin, hiri-erabileretarako eraldaketa handiak egingo dira (multzoan hartuta, Nekazaritza eta Basogintzako LPSan balio estrategiko handiko eremutzat jotzen diren 22 hektarea inguruan), eta hori ez dator bat hirigintza-plangintza gidatu behar duten jasangarritasun-irizpideekin. Lurzoru urbanizagarriko eremuak proposatu dira eta horietako batzuek Batasunaren intereseko habitatak dauzkate. Lurzoru horietan egin nahi diren jarduketak benetan behar direla eta ingurumen-arloan bideragarriak direla justifikatu beharko da, edo, hala badagokio, jarduketak birplanteatu beharko dira.

Era berean, printzipioz, uholde-arriskua duten edo kutsadura akustikoaren eraginpean dauden eremuetako hirigintza-garapen berriak desegokiak izan daitezke. Aintzat hartuta garapenak xede dituen eremu batzuek uholde-arriskuko arazoak dauzkatela, azterlanean justifikatu egin beharko da proposatutako antolamenduak bete egiten duela urtarilaren 24ko 35/2023 Errege Dekretuaren I. eranskineko 43. eta 45. artikuluetan ezarritakoa. Errege-dekretu horren bidez, demarkazio hidrografiko hauen plan hidrologikoak berrikustea onartu zen: Kantauri Mendebaldeko, Guadalquivirreko, Ceutako, Melillako, Segurako eta Jucarreko mugape hidrografikoak eta Kantauri Ekialdeko, Miño-Sileko, Dueroko, Tajoko, Guadianako eta Ebroko mugape hidrografikoen Espainiako alderdia. Bestetik, aurreikusteko modukoa da komunikazio-azpiegituretatik (errepideetatik eta metrotik) hurbilen dauden garapenak soinu-baldintza kaskarrak izango dituztela; beraz, eragin akustiko negatiboa duten eremuek bete egin beharko dituzte bai kutsadura akustikoari buruzko araudia, oro har, bai urriaren 16ko 13/2012 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko kutsadura akustikoari buruzkoa, zehazki. Etorkizunean, ezin izango da egin hirigintza-garapenik kanpoaldeko kalitate akustikoko helburuak betetzen ez diren eremuetan, hargatik eragotzi gabe aipatutako Dekretuaren 43. eta 45. artikuluetan ezarritakoa.

Hirigintza-garapen berriei heldu ahal izateko, naturaren, kulturaren eta ingurumen-arriskuaren ikuspegitik aipagarriak ez diren guneak lehenetsi beharko dira, hala nola lurzoru antropizatuak eta lurzoru kutsatuak.

Ingurumenaren ikuspegitik problematikoak diren eta gerora proposamenak gauzatzean zaindu beharko diren eremuak detektatu beharko ditu ingurumen-azterketa estrategikoak. Eremuaren ingurumen-diagnostiko egoki bat egin beharko da, haren harrera-gaitasuna, arriskuguneak, eremu hauskor edo kalteberak eta abar ebaluatzeko aukera emango duena.

5. Aurretiaz egindako kontsultei emandako erantzunen ingurumen-analisi laburra

Jarraian, eragindako administrazio publikoei eta interesdunei kontsultak egiteko izapidean jasotako txostenetako ingurumen-alderdi garrantzitsuenak laburbiltzen dira:

Landa-lurzoruari dagokionez

Bizkaiko Foru Aldundiaren Nekazaritzako Zuzendaritza Nagusiak adierazi duenez, proposatutako alternatibek balio estrategiko handiko lurzoruari eragiten diote; hortaz, aurreikusitako erabilera eta baldintzatzaileak bateragarri egin beharko dira. Halaber, zuzendaritza horren esanetan, urriaren 2ko 193/2012 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoan nekazaritza-lurra kontserbatzeari eta lur horren erabilpena sustatzeari buruzkoak) 5. artikuluan adierazten du nekazaritza-balio handiko lurzoruei eragiten dien edozein administrazio-jarduketak kalte-ordainen proposamen bat izango duela, galduko diren nekazaritza-lursailengatik, nekazaritza-lurren funtsen alde.

Txostenaren arabera, bestalde, nekazaritza-lurrei eragingo dieten alternatibak aukeratzen badira, nekazaritza-ingurunearen gaineko inpaktua aztertu beharko da, bat etorruta Nekazaritza eta Basogintzako LPSan jasotzen diren gidalerroekin.

Planak lurzoru urbanizaezinaren antolamenduaren inguruan egiten duen proposamenari buruz, Eusko Jaurlaritzaren Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak uste du irizpide hauei jarraikiz berrikusi behar dela proposamena:

- Bestalde, kostako txilardien (BIH 4040*), haltzadien (BIH 91E0*), baso autoktonoen edo harkaitzetako landarediaren (BIH 8220, Urdulizko Santa Marinako haitzetakoa) zati handi bat babes bereziko kategorian sartu ez dela ikusi du; hau da, beste antolamendu-kategoria batean sartu direla. Babes bereziko kategoria osatuko duten elementuak berrikusi behar dira, LAGen arabera jaso behar diren eremuak sartzen direla bermatzeko. Nolanahi ere, eskuragarri dagoen informazio kartografikoa landa-lanaren bidez kontrastatzea komeni da, errealitatera egokitutako kartografia bat izateko xedez, udal-eskalan egina.
- Ingurumena hobetzeko kategoriari buruz, koloreak erabiltzea gomendatzen dugu, kategorია hori basokotik (O.01 plano) hobeto bereizteko.
- Lurzoru urbanizaezineko eremu libreen sistema orokorrari dagokionez, eremu libreei buruzko araudiak berariaz jaso behar du eremuotako intereseko landaredia oso-osorik kontserbatu behar dela. Zientzietxe eta Barinatxe parkeek BIH 4040* Kostako txilardi lehor atlantikoak (*Erica vagans*) habitata dute; Trokabide parkeak, aldiz, lurzoru urbanizaezinean baita ere, sasitza gisa kartografiatuta dagoen masa bat dauka, nahiz eta egiazki baso misto atlantikoa izan (gehienbat, arteak ditu, baina baita hurritzak, zumeak, eukaliptoak ere). Zientzietxe eta Barinatxe parkeek, era berean, Itsasertzeko LPSko babes bereziko eremuak eta ingurumena hobetzeko eremuak daukate; hortaz, ingurumen-azterketa estrategikoak baloratu egin beharko du eremu librearen erabilera bateragarria ote den LPSak kategorია horietarako ezartzen dituen erabileren erregulazioarekin.
- Azpiegitura berdearen baldintzatzaile gainjarriari buruz, txostenak dio O.01 planoan erabilitako bilbeek ez dutela uzten baldintzatzaile gainjarri horretan sartutako elementuak bereizten. Bestetik, O.01 planoan mugatutako azpiegitura berdea eta O.02 planoan mugatutako azpiegitura berdea desberdinak dira. Kontu horiek guztiak berrikusi/zuzendu behar dira, proposatutako azpiegitura berdea egokia ote den baloratu ahal izan dadin geroko faseetan.

Natura-ondareari dagokionez

Hiri- eta okupazio-ereduari buruz, Eusko Jaurlaritzaren Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak hainbat irizpide eman ditu, HAPOak kontuan hartu beharko dituenak, natura-ondarearen kontserbazioarekin bateragarria izan dadin.

Ondorioztatu da SUS.03-Ander Deuna lurzoru urbanizagarriari eta SUS.05 Argaluze eremuari dagozkien jarduketek izan dezaketela inpaktu handiena natura-ondarean, eta, beraz, ingurumen-azterketa estrategikoak bereziki jorratu behar ditu horiek. SUS.03-Ander Deuna eremuaren inguruan, ez dago argi BIH 4040* gisa kartografiatu den eremuak habitat hori hartzen duen; beraz, botanikako aditu batek kontrastatu beharko du auzia. Bestetik, arte ugari identifikatu dira eremuan, eta halaberrez babestu behar dira. SUS.05 Argaluze eremuan, batetik, BIH 6510 habitata identifikatu da (heskai autoktono ugari eta arte sakabanatuak), eta, bestetik, Matadero erreka eta Torreko erreka aldamenen daudela ikusi da; bada, horien erribera-basoa garrantzitsua ez bada ere, errekek interes bereziko eremu (hobetzeko zatiak) dira bisoi europarrarentzat (*Mustela lutreola*), espeziea kudeatzeko planaren arabera¹. Bi eremu horien garapenak (8,31 eta 11,12 hektareakoak, hurrenez hurren), natura-ondareko elementu garrantzitsuei eragiteaz gainera, ez dira hirigintza-plangintza gidatu behar duten jasangarritasun-irizpideen arabekoak. Proposatutako lurzoru urbanizagarri berriek (Ander Deuna, Argaluze eta Ganeberri), guztira, okupazio berriko 22,99 hektarea daukate, baina indarreko plangintzan jada, garatzeke dauden lurzoru urbanizagarrien 12 hektarea daude (Abaro eta Ripa). Hala, ezinbestekoa da idazten den ingurumen-azterketa estrategikoan lurzoru berrien okupazioa egoki justifikatzea, jasangarritasunari dagokionez.

SUS.01 Ripa lurzoru urbanizagarrira (indarreko plangintzan dago hala kalifikatuta) atxikitako eremu libreen sistema orokorrari buruz, txostenak azpimarratu egin du eremuko hirigintza-araudian jaso behar direla Sailak zegokion Plan Partzialaren (udalbatzaren 2023ko apirilaren 21eko erabakiaren bidez eman zitzaion hasierako

¹ 118/2006 Foru Dekretua, ekainaren 19koa; beraren bidez, Bisoi Europarraren, *Mustela lutreola* (Lineo, 1761) Kudeaketa Plana onetsi da, Bizkaiko

Lurralde Historikoan, galtzeko arriskuan dagoen espeziea baita eta babesteko neurri bereziak behar baititu.

onespena) ingurumen-ebaluazio estrategikoaren esparruan (ECIA-2022_075) egindako gomendioak. Zentzu horretan, hauek aipatzen dira: sistema orokorraren eremuan dauden baso-masa autoktonoak kontserbatzea, Lemetza errearen inguruko ibaiertzeko landaredia indartzea eta espezie aloktono inbaditzaileak desagerrarazi eta kontrolatzeko neurriak hartzea.

Era berean, Plan Partzialaren ingurumen-adierazpen estrategikoan (ECIA-2020_038) ezarritako baldintzatzaileak jaso beharko dira HAPOan; besteak beste, ingurumena eta paisaia leheneratzeko plan bat egitea eta Bizkaiko Foru Aldundiak oniritzia ematea, Bisoi Europarra Kudeatzeko Planaren administrazio arduraduna den heinean.

Horrez gain, ingurumen-azterketa estrategikoak gutxienez honako adierazle hauek kalkulatzeko gomendatzen dugu (eta islatzea haien egungo balioa, arrakasta-irizpidetzat hartutako balioa eta proposatutako plangintza aplikatzearekin hartuko duen balioaren zenbatespena): Zenbatespenak arrakasta-irizpidea betetzen ez badu, Plana birformulatu edo berariaz justifikatu beharko da.

- Habitat naturalek, erdi-naturelek eta naturalizatuak hartzen duten azaleraren ehunekoa.
- Udal-plangintzak babesten duen eremua (Babes Bereziko kategoriak eta Lurrazaleko Uren Babesa).
- Artifizializatutako azaleraren ehunekoa azalera osoaren aldean
- Biztanle kopurua, hiri-lurzoruaren hektareako
- Artifizializatutako azalera, biztanleko
- Hiri-berrikuntzako esparruetan eta lurzoru urbanizagarrian kokatzen diren etxebizitza berrien guztizko kopurua
- Garraio-azpiegituren dentsitatea

Kultura-ondareari dagokionez:

Katalogoan oinarritzko babesa duten kultura-ondasunen multzoa sartu beharko da, 6/2019 Legearen ondoretarako, eta gomendatzen da aurrerapenean *1. maila. Babes ertaina* gisa jasotzen diren ondasunak sartzea.

Katalogoan *2. maila. Oinarritzko babesa* talde-izena kentzea eta horren ordean «Udalaren intereseko kultura-ondasunak» jartzea gomendatzen dugu, izen hark nahasmendua sor baitezake.

O.06-Dokumentazio grafikoko ondarea planoan, elementu hauek jasotzea gomendatzen dugu: *15. Munarrikolandako kokagunea eta 10. Zabaletzeko kokagunea, c) letran (Euskal Kultura Ondareari buruzko 6/2019 Legearen babesean babesteko proposatutako interes arkeologikoko eremuak).*

Eusko Jaurlaritzaren Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren txostenean, eranskin gisara, kultura-ondarean esku hartzeko eta berori babesteko zenbait irizpide jaso dira.

Arriskuei dagokionez:

- Uholde-arriskua:

SUS.02 Abaro sektorearen hegoaldeko eta ekialdeko eremuak Gobela ibaiaren 10, 100 eta 500 urteko errepikatze-denboraren uholde-orbanean daude. SUS.05 Argaluze eremuaren mendebaldea eta hegoaldea Gobela eta Zaituerreka ibilguen mugakide dira, eta 10, 100 eta 500 urteko errepikatze-denboraren uholde-orbanean daude. Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoan eta EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatze LPSan xedatutakoa bete beharko da; edonola ere, ahaleginak egin beharko dira aztergai dugun eremuan uholde-arriskua ez areagotzeko, eta instalazioak 500 urteko errepikatze-denborako uholde-arriskua duten kotetatik gorago jarri beharko dira.

- Arrisku sismikoa:

Udalerrian, ez da beharrezkoa arrisku sismikorako larrialdi plan bat egitea; hala ere, eraikuntza berrietan kontuan hartu beharko da sismoen aurkako eraikuntza-araua: zati orokorra eta eraikuntza (NCSR-02), irailaren 27ko 997/2002 Errege Dekretuak onartua.

- Baso-suteen arriskua:

Hirigintza-plangintza egiteko orduan, kontuan hartu behar dira Baso-suteetako Larrialdiko Babes Zibileko Plangintzaren Oinarrizko Gidalerroak (Ministro Kontseiluaren 2013ko azaroaren 15eko erabakia) jasotzen dituen mugak eta baldintzatzaileak, baita EAEko Baso-suteetarako Larrialdi Plan Berezian jasotzen direnak ere.

- Salgai arriskutsuak garraiatzeagatiko arriskua:

Sopelako udalerrian, hirigunea zeharkatzen duten BI-637, BI-3114 eta BI-2124 errepideetatik garraia daitezke salgai arriskutsuak. Arrisku hori dela-eta, 600 metroko lerro bana irudikatu behar da aztertutako azpiegituren bi aldeetara, bideekin paraleloak biak. Istripua gertatuz gero, baldintza desegokietan, hortxe hartuko litzateke esku, betiere Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Sailak 2001ean argitara emandako gomendioen (*Gai arriskutsuak tarteko diren istripuetan esku hartzeko fitxak*) eta materia arriskutsuen fluxuari buruzko *Emergency Response Guidebook* jarraibideen arabera. Larrialdien kudeaketa optimoa egiteko, egokia iruditzen zaigu komunikazio-bideetan egiten diren aldaketetan kontuan hartzea larrialdietako ibilgailuen (suhiltzaileak, sanitarioak, etab.) zirkulazioa errazteko ekimen guztiak.

- SEVESO araudia:

Hirigintza-plangintzan, kontuan hartu behar dira larrialdiko esku-hartzeen zonen eraginpeko eremuak. Horietan, arrisku kimikoari aurre egiteko prebentzio-neurriak hartu beharko dira, lurzorua erabilerei dagokienez. Sopelako Larrialdietarako Udal Planean, arrisku hori eta arriskuari dagozkion prebentzio-neurriak jaso beharko lirateke, eta plan horrek informazio-iturri izan beharko luke udalerria hirigintza-plangintzan eta -kudeaketan.

6. Ingurumen-azterketa estrategikoan kontuan hartu beharreko funtsezko alderdien definizioa eta irismena

Ingurumen-azterketa estrategikoak abenduaren 9ko 21/2013 Legearen IV. eranskinean ezarritako gutxieneko edukia izan beharko du, eta haren osagarri erabiliko da, halaber, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren II. eranskinean jasotakoa (211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena).

Aurrekoarekin bat etorritik, garatzen diren apartatuek honako eskema metodologiko hau bete beharko dute:

1. Proposatutako planaren deskribapena
 - 1.1. Plangintzaren esparrua eta helburuak
 - 1.2. Planaren irismena, edukia eta garapena
 - 1.3. Plangintza-alternatibak
2. Ingurumenaren ezaugarrien zehaztapena
 - 2.1. Ingurumen-egoeraren deskribapena
 - 2.2. Laburpena: ingurumen-alderdi garrantzitsuak
3. Ingurumen-ondorioak
4. Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak
5. Ingurumena zaintzeko programa
6. Ingurumen-laburpena
7. Laburpen ez-teknikoa

Ebaluatzen den dokumentuaren ezaugarriak direla eta, uste da Azterketak ondorengo alderdietan sakondu behar duela, jarraian adierazten den zabaltasunarekin eta xehetasun-mailarekin:

6.1. Planaren deskribapena

Deskribatuko da zer alderdik osatzen duten Plana, eta argi eta garbi identifikatuko da Plana gauzatzeak eragin ditzakeen ekintzetatik etorkizunean zeinek izan ditzakeen efektu kaltegarriak ingurumenean. Hori guztia honako atal hauetan adierazitako egitura eta xehetasunekin:

6.1.1. Plangintzaren esparrua eta helburuak

a. Azterketak barne hartuko du Planarekin lortu nahi diren helburu zehatzei buruzko laburpen txiki bat. Gainera, Azterketak labur-labur jaso beharko du nola hartu diren kontuan, Plana prestatzeko, Ebazpen honetako 2. apartatuko ingurumena babesteko helburuak eta jasagarritasun-printzipioak eta -irizpideak.

b. Hierarkian Plana baino gorago dauden planak edo programak identifikatuko dira. Azaletik deskribatuko dira Planaren xedearekin edo eremuarekin zerikusia duten plan edo programa horien zehaztapenak eta aurreikuspenak, bai eta Planari aplikatu behar zaizkion ingurumena babesteko irizpide, helburu eta zehaztapenak ere. Hierarkian Planaren gainetik dauden plan edo programen onespren-egintzaren aipamena eta data aurkeztuko dira, eta plan edo programa horien ingurumen-ebaluazio estrategikoa egin den ala ez zehaztuko da.

c. Hala badagokio, adierazi beharko da zer irizpide eta zehaztapen ezarri diren hierarkiaz planaren gainetik dauden planen ingurumen-adierazpen estrategikoan, baita plana garatzeko beste tresna batzuetan ezarritakoak ere, baldin eta ebaluatu beharreko planaren eremuari edo xedeari aplikatzekoak bazaizkio. Ingurumen-adierazpen estrategikoen erreferentzia aurkeztu beharko da; halaber, zer aldizkari ofizialetan argitaratu diren zehaztuko da, eta kontsulta-gunerako esteka txertatuko da.

d. Adieraziko da ingurumena babesteko zer irizpide, helburu eta zehaztapen finkatzen diren arauetan eta Planarekin hierarkia-harremanik ez duten plan eta programetan—beste eremu batzuetakoak: Batasuna, Espainia, autonomia-erkidegoa edo tokiko esparrua—, baldin eta aplikatu beharrekoak badira.

Zehazki, eta beste batzuen artean, honako plan eta arau hauek hartuko dira kontuan:

- EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG).
- Bilbo Metropolitarraren Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partziala.
- Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa (2022-2027); bereziki, uholde-arriskuko eremuei lotutako zehaztapenak.
- Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Uholde Arriskua Kudeatzeko Plana (2022-2027).
- EAEko Ibaiek eta Errekak Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala.
- Nekazaritza eta Basogintzako Lurralde Plan Sektoriala.
- Jarduera Ekonomikoak eta Saltokiak Antolatzeko EAEko Lurralde Plan Sektoriala.
- EAEko Trenbide Sarearen Lurralde Plan Sektoriala.
- Bizkaiko Errepideen Lurralde Plan Sektoriala.
- Bizkaiko Errepideen II. Lurralde Plan Sektoriala (izapidetzen).
- Bizkaiko Bizikleta Bideen Lurralde Plan Sektoriala.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektoriala (izapidetzen).
- 6/2019 Legea, maiatzaren 9koa, Euskal Kultura Ondarearena.
- 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko kutsadura akustikoari buruzkoa.
- 4/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, Lurzoruaren Kutsadura Prebenitzekoa eta Zuzentzekoa.
- 1/2024 Legea, otsailaren 8koa, Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketarena.
- Foru Aldundiaren ekainaren 19ko 118/2006 Foru Dekretua. Horren bidez, Bisoi Europarraren —*Mustela lutreola* (Lineo, 1761)— Kudeaketa Plana onetsi da, Bizkaiko Lurralde Historikoan; izan ere, galtzeko arriskuan dagoen espeziea da eta babesteko neurri bereziak behar ditu.
- 186/2008 Foru Dekretua, Bizkaiko Foru Aldundiarena, abenduaren 9koa, Bizkaiko Lurralde Historikoan Arrain hiruarantzaren —*Gasterosteus aculeatus* (Lineo, 1758)— Kudeaketa Plana onetsi duena, espezie kaltebera delako eta bere babesak berariazko neurriak behar dituelako.

6.1.2. Planaren irismena, edukia eta garapena

a. Planaren irismenak ezin hobeto definituta geratu beharko du. Planaren aplikazioaren ondorioz planteatzen diren ekintzen deskribapen zehatz bat egingo du azterketak, eta haiek lotura izan beharko dute planak eragindako eremuan indarrean den hirigintza-antolamenduaren aldean dakartzan aldaketekin edo xehakapenekin, baldin eta ingurumenean ondorio kaltegarri nabarmenak izan baditzaizkete, betiere eremuaren garapenerako beharrezkoak diren jarduketa guztiak aintzat hartuta.

Xehetasunez deskribatuko da indarreko plangintzan definitutako egungo egoera, Planak sartzen dituen proposamen berriei alderatuz: hirigintza-garapen berriak, eraikigarritasuna handitzea, bide berriak eraikitzea, erabilera aldatzea eta abar.

Indarrean dagoen plangintzaren aldean, antolamendua aldatzen den esparru/sektore guztietarako, datu hauek eman beharko dira:

- Planoan kokatzea.
- Azalera.
- Indarrean dagoen plangintzaren eta planak sartutako proposamen berrien arteko alderaketa: hirigintza-garapen berriak, eraikigarritasuna handitzea, bide berriak eraikitzea edo beste ekintza batzuk.
- Nabarmen kaltetu daitezkeen eremuen ingurumen-ezaugarriak.

Informazio hori argi eta garbi identifikatu beharko da, eta, horretarako, adierazpen kartografiko batean oinarritzea gomendatzen dugu, islatutako informaziora egokitutako eskalan. Lan teknikoa errazteko, kartografia *shape* formatuan aurkeztu beharko da; behinik behin, Planak hiri-lurzoru urbanizagarriak proposatu dituen jarduketak berriak jasoko dituzten eremuak eta lurzoru urbanizaezineko kategorienak, bat etorrita *Dokumentuak aurkezteko gida. Ingurumen-ebaluazioko prozedurak izapidetzea* (EJ, 2022) gidan jasotzen diren jarraibideekin. Fitxategien izenburuak argi adieraziko du zer informazio duten barruan.

Ingurumen-azterketak ondo justifikatu beharko du natura-ondarean eragin handia izango duten proposamenak ingurumenaren aldetik bideragarriak direla, hala nola eraldatu gabeko nekazaritza-intereseko lurzoru urbanizagarriak proposatutako bizitegi-garapenetan eta ibai-ibilguz, Batasunaren intereseko habitatei, landaredi autoktonoari edo galzoriko fauna-espezieak kudeatzeko planen xede diren eremuei eragin diezaieketen jarduketetan.

Eusko Jaurlaritzaren Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak adierazi duenez, SUS.03-Ander Deuna lurzoru urbanizagarriari eta SUS.05 Argaluzeko eremuari dagozkien jarduketek izan dezakete inpaktu handiena natura-ondarean, eta, beraz, ingurumen-azterketa estrategikoak bereziki jorratu behar ditu horiek. Bi eremu horien garapenak (8,31 eta 11,12 hektareakoak, hurrenez hurren), natura-ondareko elementu garrantzitsuei eragiteaz gain, ez dira hirigintza-plangintza gidatu behar duten jasangarritasun-irizpideen arabera. Proposatutako lurzoru urbanizagarri berriak (Ander Deuna, Argaluzeko eta Ganeberri), guztira, okupazio berriko 22,99 hektarea daukate, baina indarreko plangintzan jada, garatzeke dauden lurzoru urbanizagarrien 12 hektarea daude (Abaro eta Ripa). Hala, ezinbestekoa da idazten den ingurumen-azterketa estrategikoan lurzoru berrien okupazioa egoki justifikatzea, jasangarritasunari dagokionez.

Bestalde, lurzoru urbanizaezina antolatzeko proposamena zehaztu beharko da. Antolamendu-kategoriak eta gainjarritako baldintzatzaileak mugatu eta zehaztu beharko dira, bai eta haietako bakoitzari dagokion erabilera-arauak ere. Hala, Eusko Jaurlaritzaren Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzaren txostenarekin bat etorritik, aurrerapenaren proposamena irizpide hauen arabera berrikusiko da:

- Bestalde, kostako txilardien (BIH 4040*), haltzadien (BIH 91E0*), baso autoktonoen edo harkaitzetako landarediaren (BIH 8220, Urdulizko Santa Marinako haitzetakoa) zati handi bat babes bereziko kategorian sartu ez dela ikusi du; hau da, beste antolamendu-kategoria batean sartu direla. Babes bereziko kategorian osatuko duten elementuak berrikusi behar dira, LAGen arabera jaso behar diren eremuak sartzen direla bermatzeko. Eskuragarri dagoen informazio kartografikoa landa-lanaren bidez kontrastatzea komeni da, errealitateari egokitutako kartografia bat izateko aldera, udal-egokian.
- Ingurumena hobetzeko kategoriarik buruz, koloreak erabiltzea gomendatzen dugu, kategoriarik hori basotik (O.01 planoak) hobeto bereizteko.
- Lurzoru urbanizaezineko eremu libreen sistema orokorrari dagokionez, eremu libreei buruzko araudiak berariaz jaso behar du eremuotako intereseko landaredia oso-osorik kontserbatu behar dela. Zientzietxe eta Barinatxe parkeak BIH 4040* Kostako txilardi lehor atlantikoak (*Erica*

vagans) habitata dute; Trokabide parkeak, aldiz, lurzoru urbanizaezinean baita ere, sasitza gisa kartografiatuta dagoen masa bat dauka, nahiz eta egiazki baso misto atlantikoa izan (gehienbat, arteak ditu, baina baita hurritzak, zumeak, eukaliptoak ere). Zientoetxe eta Barinatxe parkeek, era berean, Itsasertzeko LPsko babes bereziko eremuak eta ingurumena hobetzeko eremuak daukate; hortaz, Ingurumen-azterketa estrategikoak baloratu egin beharko du eremu librearen erabilera bateragarria ote den LPsak kategoria horietarako ezartzen dituen erabileren erregulazioarekin.

- Azpiegitura berdearen baldintzatzaile gainjarriei dagokienez, O.01 planoan erabilitako bilbeek ez dute uzten baldintzatzaile gainjarri horretan sartu dauden elementuak bereizten. Bestetik, O.01 planoan mugatutako azpiegitura berdea eta O.02 planoan mugatutako azpiegitura berdea desberdinak dira. Kontu horiek guztiak berrikusi/zuzendu behar dira, proposatutako azpiegitura berdea egokia ote den baloratu ahal izan dadin geroko faseetan.

Baldintzatzaile gainjarriei dagokienez, tokiko azpiegitura berderako proposamenaren funtzionaltasunari lagunduko dioten mekanismoak zehaztuko dira.

Eusko Jaurlaritzaren Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzaren txostenaren arabera, natura-ondarearen kontserbazioarekin bateragarria den HAPO batek irizpide hauek hartu behar ditu kontuan:

1. Egindako proposamenen beharra justifikatzea, izango dituen ingurumen-ondorioak kontuan hartuta.
2. Justifikatzea hautemandako beharrak asetzeko beharrezkoa den eremu minimoa emango zaiela urbanizazioari edo azpiegiturari.
3. Lurzorua artifizializatzea eta hazkunde demografikoa bereiztea. Biztanle bakoitzeko artifizializatutako lurzorua gutxitzea.
4. Artifizializatutako lurzoruak modu intentsiboan erabiltzea, lurzoru berriak okupatu aurretik.
5. Lurzoru berriak sailkatzen hasi baino lehen, sailkatutako lurzoruak erabiltzeko aukera agortzea. Aproposak ez diren sailkatutako lurzoruak ordeztetakoan, beren desklasifikazioa sustatzea plangintza-tresna berean.
6. Biodibertsitate-elementu bereziei kalte egitea saihestea (bertako landaredia, espezie mehatxatuen habitatak, Batasunaren interesekoak diren habitatak, ibaiak eta errekek, padurak, heskaiak...).
7. Aukeratutako kokapenen ingurumen-justifikazioa, gainerako aukerekin alderatuta (0 aukera barne).
8. Biodibertsitatearen egoera orokorrari eustea edo hura hobetzea, bai eta ingurumen-zerbitzuak emateko duen gaitasuna ere. Ingurumenari egindako kalteak prebenitzeari lehentasuna ematea, kalte horiek konpentsatzeko neurrien gainetik.
9. Saihetsezintzat baloratu ondoren gertatzen diren kapital naturalaren galerak konpentsatzea. Plangintza-tresnan honako hauek definitu behar dira:
 - a. Non konpentsatzen den, honako hauetan oinarritutako lehentasunak definituko dituen azterlan batetik abiatuta:
 - i. leheneratu beharko liratekeen eremu degradatuak
 - ii. tokiko igarobide ekologikoen sarea
 - b. Sailkatzen den lurzoruari lotuta geratu behar du konpentsazio-jarduketak hartuko dituzten lursailen eskurapenak; adibidez, atxikitako sistema orokor baten bidez edota zuzkidura publikoak lortzeko jarduketa baten bidez.
 - c. Konpentsazio-neurrien kostua sektore berriaren urbanizazio-gastu bat da.
 - d. Konpentsazio-neurriek gauzatuta egon behar dute eraikitze-lizentziak eman aurretik.
10. Urrutiko urbanizazio eta garapen berriak sortzea saihestu behar da.
11. Hondeaketa-soberakinen kudeaketa egokia egitea, urbanizatutako diren lurzoruetan nahiz azpiegiturak garatzeko erabiltzeko.
12. Ahal den neurrian, balio naturaleko eremuak sartzeko hiri-inguruneetan, eta ez artifizializatzeari eta desartifizializatzeari garrantzia ematea, soluzio naturalen zeregina indartzeko funtsezko elementuak baitira.
13. Habitatak garatzen eta lehengoratzeko laguntzea, klima-aldaketarekiko erresilientzia hobetzeko; horrela, hiri-eremuetan karbono-hustubide gisa duten gaitasuna areagotuko da, eta landa-eremuek eta hiri-inguruek klima-aldaketen aurrean duten erresilientzia hobetuko da.
14. Azpiegitura berdea eta soluzio naturalak sustatzea, klima-aldaketaren inpaktuak murrizteko.

Ingurumen-azterketak justifikatu egin beharko du proposatutako garapen-alternatibak irizpideekin bat datozela.

Amaitzeko, landare-espezie exotiko inbaditzaile arazotsuenak dauzkaten eremuak identifikatuko dira udal-plangintzan, eta landareok desagerrarazi eta kontrolatzeko neurriak ezarriko dira; hala, jarduketa orok jarraitu beharko dio espezie horiek ez ugaritzeko protokolo espezifikoari.

b. Planaren proposamenak gauzatzeko erabiliko diren proiektu eta jarduketaren ezaugarriak buruzko aurreikuspen bat egingo da.

Azterketak identifikatu beharko ditu ingurumen-ebaluazio estrategikoa behar duten plan xehatuei dagozkien arloak eta proposamenak. Era berean, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa behar duten proiektuak —Planaren esparruan egindakoak— identifikatuko ditu; ildo horretan, garapen-baldintzatzaileak ezarriko dira, bai eta haiek garatzeko unean eraginak minimizatzeko jarraibideak ere.

c. Ingurumenean eragina izateko arriskua dakarten Planeko ekintzak deskribatu eta kokatuko dira, eta garrantzi handienekotik txikienera hierarkizatuko dira, kontuan hartuta haien kokapen zehatza, izaera, neurria eta natura-baliabideen kontsumoa. Horrela deskribatutako plan-ekintza bakoitzari kode bat esleituko zaio. Kode hori azterketaren hurrengo apartatuetan erabiliko da, baldin eta aipatu behar bada.

d. Plana onartu ondoren, haren garapena zehaztu eta plangintzaren geroagoko faseak aipatuko dira, bai eta Planaren zehaztapenak ezartzeko tresnak ere. Era berean, aurreikusiko da garapen-tresna edota -proiektu horien ingurumen-ebaluazioa egin beharko dela, hala badagokio.

e. Nolanahi ere, Plana garatzeko zenbat denbora aurreikusi den erantsi beharko da, eta, hala badagokio, aurreko apartatuan azaldutako ekintza bakoitzaren denbora-aurreikuspena zehaztuko da.

f. Epigrafe horretan bildutako informazioa kartografikoki islatuko da dagokion eskalan, eta lurraldearen erabilera adierazi beharko da, baita ingurumen-eragin nabarmenak ekartzeko arriskua duten Planaren aurreikuspen eta jarduketak ere. Informazio kartografikoa atxiki beharko da, eta, behintzat, honako hauek jasoko ditu: eremuaren mugaketa eta jarduketa guztien kokapena, PDF (geoerreferentziatuta) eta *shape* formatuetan, berrikuspen-lana errazteko.

6.1.3. Plangintza-alternatibak

a. Azaletik deskribatuko dira Plana formulatzeko prozesuan kontuan hartu diren alternatiba guztiak. Alternatiba horiek bideragarriak izan behar dute teknikoki eta ingurumenaren aldetik, eta hauei buruzkoak izan daitezke: kokalekua, garapen teknika, garapen-denbora, kudeaketa, antolamendua, baliabide naturalen erabilera edo beste edozein alderdi. Era berean, 0 aukera —esku ez hartzeko aukera— ere hartuko da kontuan, erreferentziatutako haxe hartuta: jarduketa-eremuaren alderdi garrantzitsuek izango duten bilakaera probablea Planaren proposamenak aplikatu ezean.

b. Alternatiba horien irismena deskribatuko da, eta zehaztuko da zer alde dagoen, batetik, alternatiba bakoitzetik eratorritako Planeko proiektuen eta ekintzen, eta, bestetik, 6.1.2.b apartatuan deskribatutako proiektuen eta 6.1.2.c apartatuan deskribatutako ekintzen artean.

c. Kontuan hartutako plangintza-aukerak baztertzeko eta proposatutako aukera azkenik hautatzeko arrazioen laburpena ere bilduko da.

Zentzu horretan, uste dugu ingurumen-azterketak bereziki aztertu behar dituela SUS.03, SUS.04 eta SUS.05 eremuetarako bizitegi-proposamenak, lurzoru-azalera handiak okupatuko baitira; zehazki, Nekazaritza eta Basogintzako LPSan balio estrategiko handikotzat jotzen den lurzoru urbanizazina okupatuko da.

Bestalde, ingurumen-azterketak behar bezala justifikatu behar ditu HAPOak planteatzen dituen proposamenak, kontuan hartuta Eusko Jaurlaritzaren Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzaren txostenean jasotako jasangarritasun-irizpideak, txosten honen 6.1.2 atalean ere jasotakoak, hain zuzen.

d. Aztertutako alternatibak modu kartografikoan jasoko dira.

e. Eusko Jaurlaritzaren Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzaren txostenaren arabera, ingurumen-azterketa estrategikoak gutxienez adierazle hauek kalkulatzeko gomendatzen dugu, baita haien egungo balioa, arrakasta-irizpidetza hartutako balioa eta proposatutako plangintza aplikatzearekin hartuko duen balioaren zenbatespena islatzea ere. Zenbatespenak arrakasta-irizpidea betetzen ez badu, Plana birformulatu edo berariaz justifikatu beharko da.

- Habitat naturalek, erdi-naturelek eta naturalizatuak hartzen duten azaleraren ehunekoa.
- Udal-plangintzak babesten duen eremua (Babes Berezikotako kategoriak eta Lurrazaleko Uren Babesa).
- Artifizializatutako azaleraren ehunekoa azalera osoaren aldean
- Biztanle kopurua, hiri-lurzoruaren hektareako
- Artifizializatutako azalera, biztanleko
- Hiri-berrikuntzako esparruetan eta lurzoru urbanizagarrian kokatzen diren etxebizitza berrien guztizko kopurua
- Garraio-azpiegituren dentsitatea

6.2. Ingurumen-egoeraren zehaztapena

Azterketak deskribatu beharko du nolakoa den ingurumenaren uneko egoera —alderdi nagusiak azalduta— Planaren afekzio-eremuan. Deskribapen horretan, elementu abiotikoen eta biotikoen ezaugarriak aztertuko dira, bai elementu bakoitzaren ikuspuntu sektorialetik, bai haien elkarreraginaren ikuspuntutik, eta ingurumenaren uneko egoeraren ikuspegi integratua emango da.

Planaren eraginpeko eremutzat hartuko da, hura kokatzen den eremu osoaz gain, eremu horren ingurunerik hurbilena, baina soilik Planaren ekintzek ingurumen-ondorio nabarmenak izan ditzaketen guneeetan.

Ingurumenaren kalitatearen gaineko alderdiei buruzko informazioa azterketetan edo bestelako erreferentzia-dokumentuetan oinarrituta dagoenean, emandako datuen iturria identifikatuko da, eta adieraziko da zein den izenburua, urtea eta egilea, eta, hala badagokio, zer esteka balia daitekeen lana osorik kontsultatzeko.

Azterketak ingurunearen aldagaiak jasoko ditu, eskala egokiko planoetan.

6.2.1. Ingurumen-egoeraren deskribapena

Honako hauek izango dira, gutxienez, aintzat hartuko diren ingurumen-alderdiak:

a. Ingurune fisikoa. Zenbait faktore hartuko dira kontuan, hala nola arroka ama eta zorupea, haien iragazkortasuna, masak eta ur puntuak, faktore klimatikoak eta lurzoru mota.

b. Natura-ondarea. Jasota utziko dira dauden natura-intereseko eta interes ekologikoko elementuak, hala nola ibaien ibilguak, arriskupeko fauna- eta flora-espezieen banaketa-eremuak, Batasunaren intereseko habitata, naturagune babestuak, hezeguneak, espezie autoktonoen basoak, landaredia, flora eta fauna autoktonoak, geologia-intereseko lekuak, korridore ekologikoak eta abar. Dauden elementuen kontserbazio-egoerari buruzko datuak emango dira, bai eta interes-mailari, urrakortasunari eta gaur egungo presioei eta arriskuei buruzko datuak ere, eta Plana gauzatzearen ondorioz areagotzeko arriskua ote duten adieraziko da.

Horri dagokionez, aukeratutako garapen-alternatibak zer landaredi eragingo dion deskribatu beharko da, bereziki tokiko zuhaitz-masak eta intereseko landareak dituzten eremuetan. Landaredi mota bakoitzerako, honako hauek zehaztuko dira: azalera, kontserbazio-egoera eta funtzionalitate ekologikoa. Halaber, eremuan dauden landaredi aloktono inbaditzaileko espezie guztiak identifikatu beharko dira.

c. Paisaia. Pertzepzioaren ikuspuntutik interesekoa den elementurik dagoen aztertuko da.

d. Ingurumen-arriskuak eta -arazoak. Arriskuez jaso ahal izan den datu oro emango da, kontuan hartuta, besteak beste, higadura-arriskua, lurpeko uren kutsatzearekiko kalteberatasuna, uholde-arriskua, arrisku geoteknikoak, klima-aldaketak eragindako arriskuak edo aipatzeko moduko beste edozein ingurumen-arrisku.

Orobat, airearen, uraren edo lurzoruaren kalitateari dagokionez hautemandako ingurumen-arazoak deskribatuko dira, egoera akustikoa barne. Iturri kutsagarriak eta jarduera kutsagarriak jasan dituzten lurzoruak identifikatuko dira, eta baliabide naturalen erabilgarritasuna aztertuko da, bereziki urarena.

Hala dagokionean, aipatutako ingurumen-arrisku eta -arazoen eraginpean egoteko arriskua duten eremuko guneak identifikatu eta lokalizatuko dira.

e. Kultura-ondarea. Antzemandako elementu bakoitzaren garrantzia, kalteberatasuna, babes-tresna eta babes-maila adieraziko dira. Era berean, kultura-ondasunari kalifikazioa eta babesa ematen dizkion arau-xedapena ere aipatuko da.

f. Atal honetan, gainera, beste ingurumen-baldintzatzaile batzuk landuko dira, baldin eta Planaren ingurumen-ebaluaziorako garrantzitsuak badira; hala nola, mugikortasunari eta garraioari buruzko alderdiak, eremuko irisgarritasun-baldintzak, baliabide berriztagarrien eta berriztaezinen kontsumoari lotutako beharrak (ura, energia eta abar), biztanleguneak (halakorik bada), ukituta gera daitezkeen biztanleria eta abar.

6.2.2. Laburpena: ingurumen-alderdi garrantzitsuak

Aurreko atalean azaldutako deskribapen eta datuak oinarri hartuta, ingurumenaren egungo egoera aztertuko da Planaren eraginpeko esparruan, eta labor-labor jasoko da zein diren Planeko jarduketaren ondoriozko elementu, prozesu, arazo eta ingurumen-arrisku garrantzitsuenak ingurumen-ebaluazioko prozesuan. Ingurumenaren ikuspegitik interesgarriak diren esparru, elementu edo egoeretan jarri beharko da arreta, baita eragina jasan dezaketenen alderdietan ere, Planean jasota dauden jarduketaren ondorioz sortuko diren proiektuen eta ekintzen kokapena eta ezaugarriak kontuan hartuta.

Azterketak ingurumen-ikuspegitik arazotsuak izan daitezkeen eremuak hauteman beharko ditu, proposamenak haietara egokitzeko.

Eremuaren ingurumen-diagnostiko egoki bat egin beharko da haren harrera-gaitasuna, arriskuguneak eta eremu hauskor edo kalteberak ebaluatzeko. Atal hau idazteko, hauek hartuko dira kontuan gutxienez: ebazpen honen 3. apartatuan aipatu diren ingurumen-eremu garrantzitsuak eta aplikatu beharreko araudietan eremu horietarako ezartzen diren mugaketak.

Kasu horretan, hauek dira Planak planteatzen dituen jarduketaren garapena baldintzatu dezaketenen alderdiak: jabari publiko hidraulikoaren eta kultura-ondarearen babesa, uholde-arriskua, lurzoru kutsatuen kudeaketa, kalitate akustikoa eta intereseko landaredi eta faunaren presentzia. Azterketan analizatuko dira.

6.3. Proposatutako planaren ingurumen-ondorioak

a. Atal horretan, identifikatu eta baloratuko da zer ondorio izan ditzaketen Planaren ekintzek 6.2 atalean deskribatutako ingurumen-kalitateko elementuetan, eta ondorio horien ezaugarriak deskribatuko dira. Planaren ondorioak identifikatu eta haien ezaugarriak deskribatzeko, azterketa bat egingo da jakiteko zer-nolako elkarreragina dagoen bertan aurreikusitako ekintzen eta eragina izateko arriskuan dauden ingurumen-elementuen ezaugarri espezifikoaren artean, baita zer ingurumen-arazo eta -arrisku sortu edo areagotu daitezkeen jakiteko ere.

Ezaugarrien deskribapenean, argi eta garbi zehaztu beharko da zer-nolako ondorioak dauden, honako hauek bereizita: zeharkako ondorioak, metatze-ondorioak, ondorio sinergikoak, epe labur, ertain eta luzerako ondorioak, ondorio iraunkorrak eta aldi baterako ondorioak.

Azterketaren 6.1.2.c atalean identifikatutako ekintza guzti-guztien ingurumen-ondorioak deskribatuko dira, eta berariaz aipatuko da atal horretan ekintzei esleitutako kodea.

Azterketak bereziki jorratu beharko ditu jarduketa-proposamen berriekin eta Planak indarrean dagoen antolamenduan eragin dituen aldaketekin lotutako ekintzen ingurumen-ondorioak. Nolanahi ere, kontuan hartu beharko dira dagoeneko finkatuta dauden jarduketaren eta aurreikusitako jarduketa berrien arteko konbinazioaren ondorio metatzaile eta sinergikoak.

Hala dagokionean, zenbait ekintzaren konbinaziotik eratorritako ondorioak zehaztuko dira. Gainera, ingurumen-izaerako edozein ondorio bereiziko da, baldin eta biztanleriaren, giza osasunaren edo ondasun materialen gainean eragin kaltegarri eta nabarmenak izan baditzaie.

Horrela deskribatutako planaren ondore bakoitzari, berriz, kode bat esleituko zaio. Kode hori azterketaren hurrengo apartatuetan erabiliko da, baldin eta aipatu behar bada.

Besteak beste, honako eragin hauek aztertuko dira:

- Ibai-ibilguetan eta jabari publiko hidraulikoaren babes-zortasuneko eremuetan izan dezakeen eragina ebaluatuko da, eta arlo horretako araudia betetzen dela justifikatuko da. Bereiziki, EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatze Lurralde Plan Sektorialean adierazitakoa bete beharko da, aurreikusitako jarduketek ibaiaren ibilguarekiko gauzatu behar dituzten ubide-atzeratzeei dagokienez.
- Planak uholde-arriskuan dituen ondorioak aztertuko ditu ingurumen-azterketa estrategikoak, eta behar bezala justifikatuko du indarrean dagoen Plan Hidrologikoaren araudia betetzen dela erabilerei ezarritako mugei dagokienez, fluxu iraunkorreko alderdietan eta uholde-arriskuko zaintza-eremuetan.
- Indusketetatik eta lur-mugimenduetatik eratorritako ondorioak aztertuko dira; bereiziki, kutsatuta egon daitezkeen lekuak inbentariatuta dituzten eremuetan egiten direnean.
- Era berean, Planak proposatutako antolamenduak eremuko landaredi autoktonoan dituen ondorioen ezaugarriak zehaztu eta baloratuko dira; bereiziki, hostozabalen masa autoktonoan eta identifikatutako intereseko landaredian dituenak.
- Azterketak baloratu beharko du proposatutako jarduketak egokiak ote diren tokiko konektagarritasun ekologikoa lortzeko, Euskadiko natura-ondarea kontserbatzeari buruzko azaroaren 25eko 9/2021 Legearen arabera. Bereiziki, kontuan hartuko da txosten honen 3. atalean aipatutako biodibertsitateko garrantzi handiena duten naturaguneen (naturagune babestuak, natura-intereseko eremuak, ur-ibilguak, landaredi autoktonoa duten eremuak, etab.) arteko lotura. Lotura-intereseko paisaiaren elementuen bidez lotuko dira; honako hauekin besteak beste: heskaiak eta ezpondak, zuhaitz autoktonoen oin bakartuak, zuhaitz-lerroakadura sinpleak, ur-guneak (zubiak, iturburuak, putzuak, etab.) eta harrizko hormatxoak.
- Planak eremuan identifikatutako fauna-taldeetan zuzenean nahiz zeharka —haien habitatak eraldatzeagatik— eraginik izango duen aztertuko da. Plana Bisoi Europarra (*Mustela lutreola*) Kudeatzeko Planean eta Arrain Hiruarantza (*Gasterosteus aculeatus*) Kudeatzeko Planean jasotzen denarekin eta abifauna babesteko eremuekin (Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2016ko maiatzaren 6ko Agindua, 2016ko maiatzaren 23ko EHAA, 96. zk.) bateragarria dela justifikatuko da.
- Lurzoruaren okupazioak eta artifizializazioak eragindako inpaktua ebaluatuko da, bereiziki, gaur egun landa-izaerako eta izaera naturaleko lurzoruetan eta nekazaritza-balio handiko lurzoruetan finkatuko diren proposamenenak.

Illo horretan, bat etorrita Bizkaiko Foru Aldundiaren Nekazaritzako Zuzendaritza Nagusiaren 2024ko irailaren 2ko txostenarekin, nekazaritza-lurzoruei erasango dieten alternatibak aukeratuz gero nekazaritza-inguruneari eragingo zaion inpaktua aztertu beharri dagokienez, Nekazaritza eta Basogintzako LPSaren 10.e artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio. Horrela, nekazaritza-sektorearen gaineko eragina ebaluatze protokoloa aplikatu beharko da, kontuan hartuta, hala badagokio, oinarritzko

elementu direlakoan, bai nekazaritza-lurren okupazioa, bai plangintzan jasotako proposamenen eraginpean egon daitezkeen nekazaritza-ustategien gaineko eragina.

- Euskal Autonomia Erkidegoko kutsadura akustikoari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan ezarritako kalitate akustikoko helburuak aurreikusitako erabileretan zer mailatan betetzen diren aztertu beharko da. HAPOko eremuaren zonakatze akustikoa egin beharko da, dekretu horren 20. artikuluan eta III. eranskinean zehaztutako eremu akustikoak aintzat hartuz, eta zonakatze hori erakusten duen plano txertatu beharko da hirigintzako dokumentuetan. Gainera, eremu akustiko baten barruan etorkizuneko hirigintza-garapen bat aurreikusten bada (hirigintza-kalifikazioaren aldaketak barne), eta Planak eremu horien antolamendu xehatua jasotzen badu, soinu-iturrien analisi bat egin beharko da, 20 urterako funtzionamendu-kondizioak barne, baita diseinu-aukeren azterketa bat eta, kasuak hala eskatzen badu, KAHak lortzeko beharrezko diren neurrien definizioa ere. Planaren eremuko soinu-iturri garrantzitsuenak hartu beharko dira kontuan; besteak beste, errepideko eta trenbideko garraiobideak.
- Azterketaren bidez analizatuko da Plana bateragarria ote den kaltetu litezkeen ondare- eta kultura-intereseko elementuak izendatzearen ondoriozko babes-irizpideekin.

b. Identifikatu eta kodetutako ondorioak baloratzeko, alderdi hauek hartuko dira kontuan, besteak beste:

- Gertatzeko probabilitatea, iraupena, maiztasuna eta itzulgarritasuna.
- Ondorioen neurria eta irismen espaziala.
- Eragina jasateko arriskuan dagoen eremuaren balioa eta kalteberatasuna, honako hauek kontuan hartuta:
 - Natura-, kultura- eta paisaia-ezaugarri berezirik dagoen.
 - Aurkako ingurumen-baldintzarik dagoen, airearen, uraren edo lurzorua kalitate-estandarrak edo muga-balioak gaindi dezakeenik.
 - Planak zer neurritan sortu edo areagotu ditzakeen ingurumen-arriskuak.

Ahal den guztietan, ondorioak kuantifikatuko dira, eta, horretarako, datu neurgarriak erabiliko dira; hain zuzen, Planean aurreikusitako jarduketak eta proiektuak gauzatzeak deskribatu diren ingurumen-faktoreen egoeran eragingo dituen aldaketei buruzkoak. Hala badagokio, ondorio horiek iragartzean zer ziurgabetasun-maila dagoen adieraziko da.

c. Halaber, ahal den neurrian, ondorioak kartografikoki lokalizatuko dira, eta, orobat, plan edo programaren zer fasetan gerta daitezkeen zehazteko ahalegina egingo da.

d. Adieraziko da detektatutako ondorio horren sorburu-ekintzak eskatzen duen ala ez Planaren zehaztapenak beste plan eta programa batzuetan txertatzea, eta kasu bakoitzean zehaztuko da zein plangintza-tresnari eragingo zaion.

e. Horrela deskribatutako ingurumen-ondorioak hierarkizatuko dira, eta haien garrantzi erlatiboa nabarmenduko da.

6.4. Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak

a. Apartatu honetan, deskribatuko da zer neurri aurreikusi den Azterketaren 6.3 apartatuan deskribatutako ingurumen-ondorio kaltegarriak prebenitzeko, murrizteko, eta, hala badagokio, konpentsatzeko. Hartuko diren neurriek bermatu beharko dute ez dela ingurumen-efektu garrantzitsurik sortuko, Planaren ekintzak garatzearen eta etorkizunean gauzatzearen ondorioz. Natura-baliabideak, natura- eta kultura-ondarea babestea, natura-arriskuak prebenitzea eta atzemandako ingurumen-arazoen aurrean hobetu eta egokitzea izango dute helburu.

b. Proposatutako neurriek koherenteak izan beharko dute aurreikusitako ingurumen-ondorioekin. Neurriak deskribatuko dira, eta Azterketaren 6.3 atalean identifikatutako efektuekin —prebenitu, zuzendu edo konpentsatu nahi direnekin— lotuko dira. Bereziki, neurri hauek zehaztuko dira, besteak beste, zeinak nahitaez aplikatu beharko baitira Plana onartzearen ondorioz garatzen diren plan edo proiektuetan:

- Oro har, proposatzen diren garapenek bermatu egin beharko dute EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatze LPSan eta Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoan (2022-2027 zikloari dagokiona) ezarritakoa betetzen dela. Hartara, saihestu beharko dira bai ibaiertzen alterazioa eta artifizializazioa, bai ibai-igarobidearen aniztasun eta funtzionaltasun ekologiko eta paisajistikoan laguntzen duten elementuena, eta sustatuko da, ahal denean, haiek lehengoratztea, biziberritzea eta hobetzea.

Zehazki, Gobela, Zaituerreka eta Lemotza ibaien inguruan proposatutako jarduketak zehaztean, aipatutako ibilguen ingurumena leheneratzeko ahalegin berezia egitea gomendatzen dugu. Horrez gain, beharrezkotzat jotzen da Plan bat idaztea, prozesu inbaditzaileak sor ditzaketen landare-espezie aloktonoak kontrolatzeko eta desagerrarazteko.

- Uholde-arriskuari dagokionez, Planak indarrean dagoen Plan Hidrologikoaren araudia bete beharko du, lurzoru urbanizatuko lehentasunezko fluxu-eremuko eta urak har dezakeen gainerako eremuko erabileren mugei dagokienez (43. eta 45. artikulua).

Hirigintza-garapen berrietan, behar-beharrezko diren azalerek soilik izango dute zoladura edo okupazio iragazgaitza, eta drainatze jasangarriko sistemak izan beharko dituzte (zoladura iragazkorrak, andelak edo ekaitzetarako gailuak eta abar); lehendik zegoen egoeraren aldean jariatzea handitzen bada, hori konpentsa daitekeela edo garrantzirik gabekoa dela bermatuko dute horien bitartez. Sortutako jariatze-uren tratamendua aurreikusi beharko du, halaber.

- Ingurumen-azterketa estrategikoak xehetasun-maila nahikoarekin identifikatuko ditu obren faseko neurriak, azaleko eta lurpeko uren kalitatea murriztea saihesteko, Gobela, Zaituerreka eta Lemotza ibaiak eta haien adarrak kontuan hartuta.
- Berariazko neurriak zehaztuko dira, natura-ondarea eta konektagarritasun ekologikoa zaintzeko interes berezia duten udalerriko eremuak babestekoak.
- Lehentasuna emango zaio hirigintza-garapen berriak zuhaitz-masa autoktonorik edo lehentasunezko habitatik ez duten eremuetan kokatzeari. Egitura horiek egonez gero, gune libreerara bideratzea lehenetsiko da. Lurzoru urbanizagarrietarako proposatutako garapenen inguruan, kontuan hartuko da:

- a) SUS.03-Ander Deuna eremuaren inguruan, Eusko Jaurlaritzaren Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak ez dauka argi BIH 4040* (lehentasunezkoa) gisa kartografiatu den eremuak egiaz habitat hori duen; beraz, botanikako aditu batek kontrastatu beharko du auzia. Bestetik, arte ugari identifikatu dira eremuan, eta halabeharrez babestu behar dira.
- b) SUS.05 Argaluze eremuan, batetik, BIH 6510 habitata identifikatu da (zuhaixka autoktono ugari eta arte sakabanatuak), eta, bestetik, ikusi da Matadero erreka eta Torreko erreka aldamenen daudela, eta horien erribera-basoa garrantzitsua ez bada ere, interes bereziko eremu direla (hobetzeko zatiak) bisoi europarrarentzat (*Mustela lutreola*), espeziea kudeatzeko planaren arabera; beraz, aurreikusten diren jarduketek kudeaketa-plan horretan xedatutakoari heldu beharko diote².

- SUS.01 Ripa lurzoru urbanizagarriko eremuaren (indarreko plangintzan, horrela kalifikatuta dago) hirigintza-araudiak barruan hartuko ditu Eusko Jaurlaritzaren Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak zegokion Plan Partzialaren (udalbatzaren 2023ko apirilaren 21eko erabakiaren bidez eman zitzaion hasierako onespina) ingurumen-ebaluazio estrategikoaren esparruan (ECIA-2022_075) egindako gomendioak; besteak beste, hauek: sistema orokorraren eremuan dauden

² 118/2006 Foru Dekretua, ekainaren 19koa. Horren bidez, Bisoi Europarraren —*Mustela lutreola* (Lineo, 1761)— kudeaketa-plana onartzen da, Bizkaiko Lurralde Historikoan, galtzeko arriskuan dagoen espeziea baita eta babesteko neurri bereziak behar baititu.

baso-masa autoktonoak kontserbatzea, Lemotza erreken inguruko ibaiertzeko landaredia indartzea eta espezie aloktono inbaditzaileak desagerrarazi eta kontrolatzeko neurriak hartzea.

Era berean, SUS.02 Abaro Lurzoru Urbanizagarriko Eremuaren Plan Partzialaren ingurumen-adierazpen estrategikoan (ECIA-2020_038) ezarritako baldintzatzaileak jaso beharko dira HAPOan; besteak beste, ingurumena eta paisaia leheneratzeko plan bat egitea eta Bizkaiko Foru Aldundiak oniritzia ematea, Bisoi Europarra Kudeatzeko Planaren administrazio arduraduna den heinean.

- Plangintza xehatua garatzeko, eremua lehengoratzeko plan bat idatzi eta gauzatu beharko da, eta honako irizpide hauen arabera idatziko da:

- o Zuhaitz eta zuhaixka autoktonoen multzo eta eraketa linealak ezartzeko ahalegina egingo da, baita polinizatzaileak erakarriko dituzten lore-parterreak jartzeko ere; ahal dela, horiek inguruan dagoen landaredia naturalarekin lotuz eta habitat naturalizatu bat birsortuz.
- o Obren fasean intereseko landarediari ez eragiteko neurriak hartuko dira (balizak jartzea, etab.).
- o Obrek aldi baterako eragindako gainazalak eta esku-hartzerik egin gabeko espazio libreetako eremuak birlandatuko dira, eremura egokitutako landaredi autoktonoa oinarri hartuta.
- o Planaren eremuan egon daitezkeen flora aloktono inbaditzailearen aleak ezabatzeko jarraibideak eta zehaztapenak jasoko dira, eta eremuan eta ingurunean ez hedatzeko neurri egokiak hartuko dira. Horren harira, protokolo bat idatziko da inbasio-prozesuak ekar ditzaketen landare-espezie aloktonoak (adibidez, *Cortaderia selloana*, *Fallopia japonica*, etab.) kontrolatzeko eta desagerrarazteko.
- o Irizpideak zehaztuko dira planaren ondoriozko hirigintza-garapenak paisaian integratzeko; horretarako, erabili beharreko espezieak eta birlandatu beharreko azalerak ezarriko dira, eta kontuan hartuko dira Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak egindako *Lorategi eta berdegune jasangarriak diseinatzeko eskuliburuan* jasotako gomendio eta neurriak.

Integrazio-neurrien artean, bertako espeziez osatutako landare-pantailak jarriko dira, eta lorategi-diseinu tipikoak ez diren bestelako soluzioak erabiliko dira, ahalik eta eremu naturalizatuenak sortzeko aldera. Landareztatze- eta lorategi-lanetan ez dira inola ere erabiliko inbaditzaileak izan daitezkeen espezie aloktonoak (esaterako, *Fallopia japonica*, *Robinia pseudoacacia* eta *Cortaderia selloana*), eta espezie inbaditzaileak desagerrarazteko eta ez ugaltzeko neurriak hartuko dira.

- Intereseko landaredia kenduz gero (nolanahi ere, behar bezala justifikatu beharko da), konpentsazio-neurriak hartuko dira, eragindako eremuaren azalera berdina edo handiagoa duen lurraldeko/udalerriko eremu degradatu baten ingurumen-lehengoratzeko egiteko. Ezinbestekoa da natura-kapitalaren galerak konpentsatzea eta natura-ondarearen galera garbirik egongo ez dela ziurtatzea (zero balantzea edo, hala badagokio, aurreikusitako lehengoratzearen ondoren, baita positiboa ere).
- Galzoriko fauna-espezieen interes bereziko eremuei —detektatzen direnei— ez zaie eragingo; horretarako, beste toki batzuk bilatuko dira garapen berrietarako, edo prebentzio- eta zuzenketa-neurriak hartuko.
- Planaren eremuan dauden lurzoru kutsatuak behar bezala kudeatzeko neurriak ezarriko dira, gaiaren inguruan indarrean dagoen araudiaren arabera: Ekainaren 25eko 4/2015 Legea, lurzorua kutsatzea

saihestu eta kutsatutakoa garbitzeari buruzkoa, eta abenduaren 26ko 209/2019 Dekretua, ekainaren 25eko 4/2015 Legea garatzen duena.

- Neurriak proposatuko dira nekazaritza-jarduera sustatzeko eta hobetzeko, balio estrategiko handiko lurzorua galera orekatzeko, narriatutako eremuak berroneratuz, azpiegiturak hobetuz edo nekazaritza-lurren funtsari lurzoru publikoak utziz.

Hala, Bizkaiko Foru Aldundiaren Nekazaritzako Zuzendaritza Nagusiaren 2024ko irailaren 2ko txostenak azpimarratzen duenez, urriaren 2ko 193/2012 Dekretuaren (Euskal Autonomia Erkidegoan nekazaritza-lurra kontserbatzeari eta lur horren erabilpena sustatzeari buruzkoaren) 5. artikulua aplikatuko da. Bada, artikulua horrek adierazten du nekazaritza-balio handiko lurri eragiten dien edozein administrazio-jarduketak kalte-ordainaren proposamen bat izango duela, galduko diren nekazaritza-lursailengatik, nekazaritza-lurren funtsen alde.

- Sortutako hondakinak behar bezala kudeatzeko neurriak ezarriko dira, gaian indarrean dagoen araudiaren arabera.
- Hala badagokio, kalitate akustikoaren helburuetara iristeko behar diren neurriak ezarriko dira, EAEko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 40. artikuluan zehaztutakoaren arabera eta eremu akustikoak eta erabilera aurreikusitako kontuan hartuta.

Errepideen Zortasun Eremuaren barruan dauden eremuetarako kontuan hartu beharko da urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 30. artikuluan —azpiegitura autonomikoen zortasun akustikoko eremuaren ondorioei buruzkoan— zehaztutakoa.

- Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak eskatzen duenari jarraikiz, Azterketak barnean hartuko ditu klima-aldaketa gaineko eragina apaltzeko eta hartara egokitu ahal izateko neurriak. Xede horrekin, ihobek egindako gida metodologiko hauek erabili ahal izango dira erreferentzia gisa: «Klima-aldaketa egokitzeko udal-programak egiteko gidaliburua. Udalsarea 21eko lan-koaderno» eta «Euskadiko Hirigintzaren Plangintzari buruzko eskuliburua klima-aldaketa arintzeko eta klima-aldaketa egokitzeko». Era berean, Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko otsailaren 8ko 1/2024 Legean hirigintza-plangintzarako adierazten diren neurriak bultzatuko dira.
- Azkenik, Klima-aldaketa eta trantsizio energetikoaren maiatzaren 20ko 7/2021 Legean ezarritakoarekin bat etorritik, Plana gauzatzeko proiektuak klima-aldaketa aurrean pixkanaka eta erresilientzia egokitzeko beharrezkoak diren neurriak kontuan hartuta diseinatuko dira. Adibidez, klima-aldaketa egokitzeko eta «uharte termikoaren efektua» gutxitzeko asmoz, jarduketak ahalbidetzen badu, hiri-babesleku klimatiko gisa funtzionatuko duten itzalguneak sortu eta ingurunea naturalizatzeko prozesuak sustatuko dira.

c. Adieraziko da Planaren zein zatitan txertatu diren proposatutako neurriak, eta espresuki zehaztuko da Planean bildutako zein dokumentu teknikotan jaso diren neurri horiek.

d. Hala badagokio, prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak proposatuko dira, horiek aplikatzea komenigarria edo egingarria denean, bai plangintzaren geroagoko fase edo etapetan, bai Plana gauzatzeko diseinatzen diren etorkizuneko proiektuetan.

e. Kostu ekonomikoren bat dakarten prebentzio- eta zuzenketa-neurrien aurrekontua ere jasoko da, eta adieraziko da zein den horiek gainbegiratzeko arduratuko den agentea edo pertsona.

6.5. Ingurumena zaintzeko programa

a. Azterketak ingurumena zaintzeko programa bat garatuko du, eta, hartan, Plana aplikatzeak dakartzan ondorioak berrikusteko aurreikusitako neurriak deskribatuko dira. Neurri horien helburua alderdi hauek kontrolatzea izango da:

- Planak ingurumenean izan ditzakeen ondorio kaltegarriak prebenitu, murriztu edo zuzentzeko neurriak behar bezala ezartzen direla gainbegiratzea.
- Ingurumen-elementu garrantzitsuen bilakaera zaintzea, baita Plana martxan jarri aurretik zeuden ingurumen-arazoen bilakaera ere.
- Plana gauzatzearen ingurumen-ondorioak aztertzea, aurreikusi gabeko ondorio kaltegarriak azkar identifikatzeko, baita haiek eragozteko edo zuzentzeko neurri egokiak hartzeko ere.
- Plana exekutatzeko aurreikusitako garapen-tresnetan eta proiektuetan prebentzio- eta zuzenketa-neurri osagarriak hartu behar den zehaztea.

b. Jarraipen-neurriak identifikatuko dira, eta neurri horiek bat etorri beharko dute Azterketaren 6.4 atalean jasotako babes-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriekin.

c. Ingurumena zaintzeko programak jaso beharko du zer adierazle proposatzen diren Azterketan, baita zer proposamen zehatz egiten den ere, kasu bakoitzean datuak biltzeko erabiliko diren aldizkakotasunari eta metodoei buruz.

6.6. Ingurumen-laburpena

a. Ingurumen-alderdiak Planean nola txertatu diren deskribatuko da. Xehetasunez aztertuko da nola hartu diren kontuan eta nola betearazi diren Azterketaren 6.1.1. atalean ingurumena babesteko finkatutako irizpideak, helburuak eta zehaztapenak.

b. Aztertuko da zer-nolako probabilitatea dagoen Planak etorkizunean ingurumenean ondorio nabarmenak izateko, eta behar diren argudioak emango dira honako hau egiaztatze aldera: proposatutako babes-, zuzenketa- edo konpentsazio-neurriak Planean txertatuz gero, oso arrisku txikia dagoela ondorio nabarmen horiek gertatzeko eta, ondorioz, ez dagoela eragozpenik Plana garatzeko. Ondorio hori oinarritzeko, Azterketaren gainerako apartatueta jasotako informazioei buruzko erreferentzia egokiak erabiliko dira.

6.7. Laburpen ez-teknikoa

a. Azterketak emandako informazioaren laburpen ez-tekniko bat ere bilduko du, eta ebaluazio-prozesuan jorratutako gaietako prestakuntza espezifikorik ez duten pertsonak erraz ulertzeko moduan idatzita egon beharko du laburpen horrek.

b. Laburpen horri, gainera, egindako ebaluazioa hobeto ulertzen lagunduko duen informazio grafikoa erantsi beharko zaio, edo, bestela, informazio hori erraz eskuratzeko behar diren erreferentziak jaso beharko dira.

7. Jendaurreko informazioaren izapideak eta kontsultak

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 21. artikuluan ezarritakoa betetzeko, organo sustatzaileak jendaurrean jarriko du programaren lehenengo bertsioa, bai eta ingurumen-azterketa estrategikoa ere, 45 egunez gutxienez.

Era berean, organo sustatzaileak, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 21. artikuluan eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 73. artikuluan xedatutakoa betetzeko, gutxienez, irismen-dokumentu hau egiteko kontsultatu diren administrazio publiko ukituen eta interesdunen eskura jarriko ditu Planaren hasierako bertsioa eta ingurumen-azterketa estrategikoa, azter ditzaten. Erakunde hauei egin zaie kontsulta:

- Eusko Jaurlaritzaren Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzaren Kultura Ondarearen Zuzendaritza.
- Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendariordetza. Osasun Sailaren Bizkaiko Lurralde Ordezkaritza. Eusko Jaurlaritza.
- Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza
- Eusko Jaurlaritzaren Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza.
- URA-Uraren Euskal Agentzia.
- Ihobe.

- Bizkaiko Foru Aldundiaren Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusia.
- Kulturako Zuzendaritza Nagusia. Bizkaiko Foru Aldundia.
- Nekazaritzako Zuzendaritza Nagusia. Bizkaiko Foru Aldundia.
- Garraioen Zuzendaritza Nagusia. Bizkaiko Foru Aldundia.
- Ekologistak Martxan.
- Eguzki. Eguzkizaleak aisialdi-elkartea.
- Ancora Elkartea, Ondarearen Kontserbaziokoa.

8. Dokumentazioa aurkezteko jarraibideak

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 24.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, organo substantiboak ingurumen-ebaluazio estrategikoaren espediente osoa igorriko dio ingurumen-organismoari, honako hauek barnean hartuta: plan edo programaren azken proposamena, ingurumen-azterketa estrategikoa, informazio publikoaren eta kontsulten emaitzak eta laborpen-dokumentu bat, plan edo programaren azken proposamenean honako alderdi hauek nola txertatu diren azaltzen duena: ingurumen-alderdiak, ingurumen-azterketa estrategikoa eta azterketa hori irismen-dokumentura nola egokitzen den, egindako kontsulten emaitza eta kontsulta horiek nola hartu diren aintzat.

Ingurumen-adierazpen estrategikoa eskatzeko eta dokumentazioa entregatzeko, behar bezala bete beharko dira Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren webgunean horri buruz dauden jarraibideak, esteka honetan jasotzen direnak:

<https://www.euskadi.eus/informazioa/ingurumen-ebaluazio-estrategikoaren-prozeduraren-tramitazioa/web01-a2inginp/eu/>

Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa gidaliburuaren arabera egin eta aurkeztu beharko da. Gidaliburua ingurumen-organismoaren webgunean dago eskuragarri, esteka honetan:

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/tramitacion_eae/eu_def/adjuntos/2022_Dokumentuak-aurkezteko-GIDA_v4.pdf

Bigarrena. - Ebazpen hau Sopelako Udalari jakinaraztea.

Hirugarrena. - Ebazpen hau Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren webgunean argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urriaren 2a.

Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularreko zuzendaria

Javier Agirre Orcajo